

ANTXIETA

arkeologi taldea



urte lanean gozatuz

Azpeitia
1965-2015

GURE LANA

aurrehistoriako arrastoen aurkikuntzan oinarritzen da, bai haitzuloetan, baita aire librean ere. Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenarekin ikerketako lehen fasean murgiltzen gara, hau da, mendian miaketak eta zundaketak egin, laginak analizatu eta azterketa bat egiten dugu, aurkikuntzaren ezaugarriak neurtzeko.

Lan hauek arkeologo profesional batek gainbegiratzeko eta zuzentzeko dituzte, eta ikerketako lehen fasea amaitzean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arkeologia gordetegira eramaten dira dagokien azterketa sakona eta katalogazio ofiziala egiteko.



GURE IZENA

1965etik Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia (AJTA)
1992tik Antxieta Arkeologi Taldea

Antxieta Arkeologi Taldea

Zorionak eta eskerrik asko parte izan eta zareten guztiei

ENEKO ETXEBERRIA, Azpeitiko alkatea



Andoni Albizuri eta Rafael Rezabali Ekainen aurkitzaileak izateagatik ezagutzen zaie, baina gaur ez ditugu arrazoi honegatik ekarriko gogora, baizik eta, Antxieta Arkeologi Taldearen sortzaileak izateagatik, alegia, aurten, 2015. urtean, 50 urte betetzen baititu!

Andoni eta Rafaelek 1965. urtean jartzen dute martxan proiektu hau. Ia beti bakarrik, eta beste batzuetan lagunez inguraturik, igandero ateratzen dira arrasto fosilak bilatzera. Asteazken zehar, astearte gauetan elkartu ohi dira aurkituriko materiala garbitu eta kokapen geografikoa finkatzeko. Gaur egun ere, berrogeita hamar urte beranduago, berdina egiten jarraitzen dute egungo kideek.

Hamarurteberanduago, Ekaineko aurkikuntzak eraginiko oihartzun mediatikoaren ondorioz, aurpegi berriak batzen hasten dira taldera, hein handi batean, arkeologiaren bitartez, abentura eta historiaurreari buruzko kuriositate egarria asetzeko aukera edukiko duten gazte grinatsuak. 1975-1985eko hamarkadan gaude.

Beste batzuk, Andoni Albizuriren erakartzeko gaitasunagatik batzen dira, denentzako erreferente eta maisu delarik. Andoni, 1983an hiltzen da, baina bere haziak fruitu ugari ematen jarraituko du.

Hurrengo hamarkadetan hainbat gazte berri gehitzen joaten dira. Taldea ez da sekula jendetsua izan, baina bai aktiboa. Ohikoa den bezala, batzuk etorri eta beste batzuk joan egiten dira; norbanako batzuek noizbehinka parte hartzen dute. Benetako jarraipena, hainbat hamarkadetan zehar mantendu diren dozena bat pertsonen ziurtatzen dute, denbora guzti horretan, isilean, lan izugarria egin duten horiek, alegia.

Beraien lana, kobetan eta eremu zabaletan historiaurreko aztarnen bilaketan oinarritu izandu eta oinarritzen da.

Antxieta Arkeologi Taldeak egin dituen aurkikuntzen zenbatekoa oso altua da, Urolako bailaran egon diren ziklo klimatiko

El balance de Antxieta Arkeologi Taldea se resume en incontables hallazgos prehistóricos, tanto en cuevas como en yacimientos al aire libre, lo que nos ha permitido conocer la flora, la fauna y la vida durante los diferentes ciclos climáticos y también la evolución del ser humano en el Valle de Urola. ¡Un tiempo que abarca más de 300.000 años!

ezberdinetako landare, animalia eta bizimodua ezagutzeko balio dute eta baita gizakiaren eboluzioa ere. Besteak beste, 300.000 urte baino gehiago hartzen duen denbora zatia.

Aurkikuntza guztien artean, arkeologikoki izugarritzko garrantzia duten hainbat erreferentzi aurkitu ditzazkegu: Ezkuzta, Irikaitz, Danbolinzulo, Erlaitz... eta gainera, Ekain. Hauetako aurkikuntza batzuk duela gutxiokoak dira, 2014 bukaeran eta 2015. urte hasieran kokatzen direlarik.

Hala ere, garrantzitsua izan baldin bada talde azpeitiarrak eginiko lana, ez da hainbestekoa izan bere oihartzuna. Bertako taldekide eta arkeologo profesionalez gain, Azpeitian eta Urola bailaran oso gutxi zekiten Antxieta Arkeologi Taldeak eginiko lanaren dimentsioaz.

Azpeitiko alkate bezala, beharrezkoa ikusten nuen eginiko aurkikuntzak eta gure bailarako historiaurreari buruz daukaten ezagutza

guztia azaltzea. Hau da, lan pedagogiko eta hedapen soziala egitea.

Nahi honetatik "Hezurren Egia" kanpaina sortu zen Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizamako udalen artean.

"Hezurren Egia" kanpaina martxan jartzeko bazegoen ere beste arrazoi garrantzitsu bat, gure gazteen jakinmina suspertu eta Antxieta Arkeologi Taldearen etorkizuneko proiekturako jende gehiago lortzea, alegia. Proiektu honetan gazte berriak sartzea ezinbestekoa da gure herri eta bailarako historiaurreari buruz ditugun hainbat eta hainbat galderei erantzuna eman nahi badiegu. Jakinminez eta ilusioz beteriko gazteak, berrogeita hamar urteko lan eta historiari jarraipena emango dienak.

Nire aldetik, zorionak eta eskerrik asko eman nahi dizkizuet Andoni eta Rafaelen ametsa betetzen lagundu duzuen pertsona guztiei, eta ongi etorria, historia eta amets berri baterako gehitu nahi duzuenoi.

Antxieta Arkeologi Taldea's work is summarized in countless prehistoric findings, both in caves and in open air sites, allowing us to know the flora, fauna and life during different climate cycles and the evolution of human beings in Urola Valley. A period spanning over 300,000 years!

Hitzaurrea

PACO ETXEBERRIA GABILONDO, Aranzadi Zientzia Elkarte lehendakaria



Jokin Apalategik bere liburuan “Psicosociología de los movimientos asociativos vascos” (1999), identitatearen inguruan bereizten gaituen ezaugarrietako bat herritarren artean sortzen ditugun loturak direla kontsideratzen du, hala nola, eskuzabaltasuna eta ekintzen dibertsitatea nagusitzen diren elkarten bitartez.

Hain zuzen ere, harrigarria dirudi gizarte dinamiko eta moderno batean elkarteek suposatzen duten aberastasuna. Elkarbizitza kolektiboan, sozialean eta kulturean trukean ezer eskatu gabe parte hartzen eta inplikatzeko diren elkarteak, alegia. Kontrari, euskal autogobernuaren garapenean dimentsio hau ez da behar adina goraipatua izan instituzioen aldetik, XXI. mendeko lehen hamarkadetan denon artean lortzera iritsi garen arrakasten benetako motorra esfortzuz beteriko balore hiritarrak baitira, eta aldizka, hauek ez dira kontuan hartu.

Representando a toda la Sociedad de Ciencias Aranzadi, con casi setenta años de historia, quiero en primer lugar felicitar al Ayuntamiento de Azpeitia por haber impulsado la presente publicación que es un reconocimiento público e institucional al Grupo Antxieta, merecido y al que todos debemos mucho.

Hitzaurre xume honen bitartez, Aranzadi Zientzia Elkarte bere osotasunean ordezkatzuz, jatorritik gaur egunera, ia hirurogeita hamar urteko historiarekin, lehenik eta behin Azpeitiko Udala zoriondu nahi dut, denok asko zor diogun Antxieta Taldeari merezitako errekonozimendu publiko eta instituzionala den argitalpen hau bultzatzeagatik.

Askok zor diogu taldeari, bertako kideak izan baitzirenaurkikuntza arkeologikogarrantzitsuak egin eta benetako talde-lanaren bitartez besteekin partekatzen jakin izan zutenak. Oraindik fruituak ematen jarraitzen duten irmotasuna eta integrazioa, gertutik ezagutu ditugunak elkarrekin bizi izan ditugun bizipen eta kezkegatik, pertsonalki oso aberasgarria izan den giroan. Egia esateko, batera hazi garelako esan dezakegu eta instituzioek memoria ez daukaten arren, taldea osatzen dutenek bai eta horregatik azaldu behar dute liburu honetan.

On behalf of all Aranzadi Science Society, with nearly seventy years of history, I want first congratulate the Azpeitia Local Council for having promoted this publication which is a public and institutional recognition to Antxieta Group, well-deserved and to whom we all owe much.

Izan ere, nik neuk hain minak nituen eta ditudan Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal Ekaingo kobako pinturen aparteko aurkikuntza nolakoa izan zen kontatzeko modua gogoratzen dut, pertsona on eta zintzoek egiten duten naturaltasun eta xumetasunarekin.

Umorearekin, Antxieta Taldeko bi ordezkari duin hauek aurkintzaren ondoren A. Albizuri eta R.Rezabal izatera pasatu zirela zioten, prentsak eta argitalpen zientifikoek beraien benetako izena kendu baitzien.

Egia esateko, hainbeste ardura eta esfortzuek, paperean azaltzea zailak diren arrakastak lortzera eramaten zaituzte; hobeto esanda, sentsibilitatea duten pertsonen barnean geratzen diren bizipenak direla esango nuke, norberarekin betirako geratzen direnak, alegia. Ezin direnak ordaindu. Transferitzea zailak direnak.

Tiene sentido este libro que explica el inmenso trabajo realizado, año tras año y sin descanso. Toda una generación y hasta la misma vida dedicada sin pedir nada a cambio. Ejemplo que debería servir también para quienes son más jóvenes y que seguramente necesitan impulso para canalizar sus vocaciones como ha sido el Grupo Antxieta para muchos azpeitiarras.

Horregatik, zentzu guztia dauka liburu honek, urteetan, deskantsurik gabe, egin den lan izugarria azaltzen baitu. Belaunaldi oso bat, bizitza bere osotasunean eskainita ezer trukean eskatu gabe. Gazteagoak direnentzat eta seguraski beraien zaletasuna kanalizatzeko bultzada bat behar dutenentzat, adibide izan beharko lukeena, Antxieta Taldea azpeitiar askorentzat izan den bezala.

Aranzadi Zientzia Elkartetik zeharo ulertzen diegu eta harro sentitzen gara harreman zuzen eta pertsonala edukitzea ahalbidetu digutelako Izarraizko baso eta kareharrizko harkaitzen artean eta baita argia iristen ez den koben barruan ere.

Agian belaunaldi berekoak garelako, ohore bat da niretzat paragrafo hauek idatziak uztea merezi eta zor zaizuen errespetu eta errekonozimendu zintzoenarekin. Zorionak!

This book makes sense because it explains the immense work done year after year without rest. An entire generation and even the life dedicated without asking anything in return. Example which should also serve to those who are younger and surely need a boost to channel their vocations as has been the Antxieta Group for many people in Azpeitia.

AURKIBIDEA

Agurra

Eneko Etxeberria, Azpeitiko alkatea

4-5

Hitzaurrea

Paco Etxeberria, Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakaria

6-7

50 urte arkeologia egiten Gipuzkoan

Maria Jose Iriarte Chiapuso

Alvaro Arrizabalaga

10-23

Pertsonak eta aurkikuntzak

Antxieta Arkeologi Taldearen artxibotik

1965-1675

1976-1985

1986-1995

1996-2005

2006-2015

24-67

26

34

40

46

56

Aurkikuntza azpimarragarrienak

Antxieta Arkeologi Taldearen artxibotik

Ekain

Ezkuzta

Irikaitz

Danbolinzulo

Erlaitz

68-79

70

72

74

76

78

Testigantzak	80-101
Antxieta Arkeologi Taldekoak	
Maria Jesus Arregi	82
Rafael Rezabal	84
Iñigo Olarte	86
Jose Inazio Arrieta	88
Andrex Maiz	90
Jabier Lazkano	92
Jabier Maiz	94
Xabier Azkoitia	96
Iñigo Arizaga	98
Ion Uranga	100
Hezurren Egia	106
Gure lana gizarteratzea	
Zuzendari Teknikoa: Jesus Tapia	



50 URTE ARKEOLOGIA EGITEN GIPUZKOAN



Maria Jose Iriarte Chiapusso¹
Alvaro Arrizabalaga²

¹ IKERBASQUE (Basque Foundation for Science) eta
Euskal Herriko Unibertsitatea

² Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera

Gizakia definitzen duen ezaugarrietako bat bere izaeraz eta iraganaz jabetzeko erakusten duen ahalmena da. Ahalmen hori gaur egungo eboluzio-egoerara iristeko nola egin dugun ezagutzeko eta ulertzeko jakin-minarekin uztartzen badugu, Antxieta Arkeologi Taldearen abiapuntuan geundeke.

Gipuzkoako kulturesparruan, gure historiaurrea ikertzeko ardura hori agerikoa zen dagoeneko XIX. mendean, eta Ramon Adan Yarza, Modesto del Valle Inzaga (Lersundiko Kondea) eta Anselmo Gomendio dira horren adibide. XX. mende hasieran, Donostiako Udal Museoko zuzendari Pedro Manuel Soralucek egindako lana ezinbestekoa izan zen Gipuzkoako jarduera arkeologikoen garapenerako. Bere ekimenek eta Telesforo Aranzadi, Jose Migel Barandiaran eta Enrique Egurenekin harilkatu zituen harreman pertsonal zein profesionalek historiaurrearen ikerketaren oinarriak ezarriko dituzte. Espainiako gerrak jarduera horiek moztu zituen, eta, Jose Migel Barandiaran erbesteratuta egon zen denboraldian, Aranzadi Taldeak hartu zuen txanda. Jose Migel Barandiaran itzuli zen (1953) eta Aranzadi Taldearen zuzendaritzan sartzean Gipuzkoako

historiaurreari bultzada ikaragarria eman zion (Ceberio, 2011, Arrizabalaga (ed) 2005, 2009). Bere izaerak eta Historiaurrearen zein Etnografiaren esparruetan egin zituen ikerketa-jarduerek bai ikertzaileak bai zaleak trebatzea eta akuilatzea lortu zuten.

Testuinguru horretan kokatzen da Andoni Albizuri "Katxo" k Euskal Kulturari buruz erakutsi zuen jakin-nahia, eta gizakiaren iraganak beregan pizten zuen grinak eta Jose Migel Barandiaranen lagun izateak bultzatu zuten AJTA, Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia-Arkeologia Sailaren oinarriak ipintzera.



En 1965 Andoni Albizuri pensó en crear un grupo que le interesara la búsqueda de yacimientos humanos prehistóricos en el valle del Urola, a cuya iniciativa se le unió Rafael Rezabal. Siguieron los consejos de Jose Miguel Barandiaran para la parte técnica de la búsqueda y posterior catalogación.

In 1965 Andoni Albizuri decided to create a group that would be interested in finding prehistoric human sites in the Urola valley. Rafael Rezabal joined the initiative. They followed the advice of Jose Miguel Barandiaran for the technical part of the research and subsequent cataloging.

Giza taldea

1965ean, Andoni Albizurik inguruan historiaurreko giza okupazio aztarnak aurkitzeko interesa zuen talde bat antolatzea pentsatu zuen. Mendizaletasunak eta haitzuloak gustatzen zitzaizkien, baina bereziki beren herriko kulturak erakartzen zituen Andoni eta Rafael Rezabal; laster elkartu ziren, eta, handik aurrera, beren denbora librean Azpeitiko udalerria eta, oro har, Urola bailara arakatzeko baliatzen zuten.

Jose Migel Barandiaranen aholkuei esker, Antxieta Taldeko kideek bazekiten oso garrantzitsua zela erregistroak eratzea, bai prospekzio lanarena bai lortutako informazioarena. Aurreneko lana arkeologiaren ikuspuntutik interesgarrienak ziren Urola bailarako guneak aukeratzea zen. Ondoren, landa-azterketari ekiten zioten (batik bat aste bukaeretan), haitzuloetan aztarnategi arkeologikoak aurkitzeko asmoz. Arpearen ezaugarriak egokiak zirela iruditzen bazitzaien, neurri txikiko lagina egiten zuten (40 x 20 cm) erregistro arkeologikoa ba al zegoen ala ez baieztatzeko. Asteaz zehar, jasotako materialak garbitzeko eta horiei erreferentziak ipintzeko elkartzen ziren, bai eta dokumentazio zehatza

idazteko zein ikuskatutako kobazuloen plano topografikoak egiteko ere.

1965-1975 hamarkadan, Andoni eta Rafaelek Jokin Elorza, Luziano Ansoalde (1935-1993) eta Jose Aranburu "Txata"ren laguntza zuten langintza horietan, horien lana zuten denbora librearen arabera bazen ere. Denbora tarte horretan, gazteei Historiaurrearengatik sentitzen zuten sua eta garra eransten asmatu zuten, eta horrek hurrengo urteetan taldea handitzea ekarri zuen; batzuk, oraindik orain, orduan hartutako konpromisoari eusten diote (Iñigo Olarte, Jose Inazio Arrieta, Andrex Maiz, Xabier Lazkano, Joseba Irureta eta Andoni Irureta).

Jose Migel Barandiaranek bere laguntza zientifikoa ematen jarraitzen zuen, baina Jesus Altunarekin ere elkarlanean hasi ziren. Prospekzio lanak egiteaz gain, indusketa arkeologikoetan ere parte hartzen hasi ziren, eta jarduera horiek esparru horretako beren prestakuntza aberastu zuten. 80. hamarkadako lehen erdian Zestoako Amalda haitzuloko indusketan lagundu zuten. Beren lan-metodologia mantentzen zuten, baina

El grupo fue creciendo y también evolucionó su metodología, lo que permitió que se hicieran un hueco importante en el ámbito de la arqueología guipuzcoana.

The group grew and developed its methodology, which allowed the work to obtain recognition in the field of archeology in Gipuzkoa.

1975etik aurrera egiten zituzten laginen formatua aldatzea erabaki zuten, eta jarduketa-azalera metro karraturaino handitu.

Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia finkatzen ari zen une hartan, kolpe gogorra jasan zuten, Andoni Albizuri (1935-1983) hil baitzen. Hala ere, Andonik bere lanean erakutsi zuen grinak eta pasioak taldekideengan eragin zuzena izan zuten, eta haren ekimenak tinko jarraitzen du hogeita hamar urte geroago.

1985-1995 epean Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia sendotu egin zen Rafael Rezabalen babespean eta hainbat laguntzaile ere eduki zituen.

Antxieta Jakintza Taldea indartu egin zen, beraz, eta arkeologiaren munduak ere aintzakotzat hartu zuen, jasotako ezagutza eta eskarmentuari esker Gipuzkoako ikertzaileek eta instituzioek begirune handiagoa eskaintzen baitzioten (ikusi **DOK 1** eta **DOK 2**).

Denborak aurrera egin heinean, egoera hori sustraitzen joan zen eta, gaur egun, modu egonkorrean ikerlariekin eta erakunde pu-blikoekin lankidetzan dihardu hainbat proiektu eta jarduera arkeologikoetan (prospekzioak, katak, zundaketak, indusketak, aztarnategi arkeologikoen babesak, etab.). Horren adibide da Alvaro Arrizabalaga eta Maria Jose Iriarterekin Irikaizko indusketan (1998) hasiera-hasieratik dutena; izan ere, ikerketa-proiektuetan parte hartzen dute aipatu ikerlari horiekin, historiaurreko gizarteen Urola bailararen okupazioa ezagutu ahal izateko, aztarnategien prospekzio eta indusketen bitartez.

1992an, Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia (Arkeologi Saila) Irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, baina, akats burokratiko baten erruz, elkarteari erregistroan Antxieta Arkeologi Taldea legezko izendapena eman zioten, eta, harrezkero, hori da taldeak duen izena.

En 1992, Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia se convirtió en una asociación sin ánimo de lucro, pero por un error en el registro, se pasó a llamar Antxieta Arkeologi Taldea.

In 1992, Antxieta Jakintza Taldea Azpeitia became a non-profit association, but because of an error in the register, it came to be called Antxieta Arkeologi Taldea.

Azpiegitura

Boluntario-lana dago Antxieta Arkeologi Taldearen oinarrian. Hasieratik, partaide guztiek beren dedikazioa eta denbora librea musu-truk eskaini dute, eta behin baino gehiagotan familiakoekin negoziatu behar izan dute.

Laguntza ekonomikoak urriak izan ziren 1980ko hamarkadararte, eta, gehienetan, enpresen aldetik, haitzuloetan argia egiteko beharrezkoak zituzten lintementzako pilak baino ez zituzten jasotzen. Egoera aldatzen hasi zen 1982an, Udalak Guardia Zibilaren kuartel-etxea izan zeneko eraikinean lokal bat erabiltzeko aukera eman zietenean. Ordura arte, materialen eta informazioaren erregistratze lan guztia Andoni Albizuriren ganbaran egiten zuten. Une horretatik aurrera, egoera ekonomikoak ere hobera egin zuen, beren jarduera arkeologikoak jorratu ahal izateko udalaren aurreneko diru-ekarpena jaso baitzuten eta Foru Aldundiaren diru-laguntzak jasotzen hasi baitziren.



Diru-ekarpen horiek jasotzeak Antxieta Arkeologi Taldeari bere lana finkatzeko aukera eman dio. 2005ean, Azpeitiko Udalak lokal berria eskaini zien, Telefonicarena izan zen eraikinean, bai eta lur orotako ibilgailua ere, landa-lanerako beharrezkoa den ekipamendua garraiatzea asko erraztu zuena (ikusi **DOK 3** eta **DOK 4**).

Antxieta Arkeologi Taldea se basa en el voluntariado. Aunque al principio las ayudas económicas fueron muy escasas, hoy en día cuentan con un local y vehículo propio cedidos por el Ayuntamiento de Azpeitia.


Antxieta Arkeologi Taldea is volunteer-based. Although initially financial aid was very limited, today they have their own premises and a vehicle, both donated by Azpeitia Local Council.



SOCIEDAD DE CIENCIAS
ARANZADI
ZIENTZIA ELKARTEA
Plaza Ignacio de Zuloaga
(MUSEO)
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
Tel. 42 29 45

Esta Sociedad de Ciencias autoriza al Grupo Cultural Antxieta de Azpeitia a realizar catas prehistóricas en cuevas de Guipúzcoa, para ver si contienen yacimiento arqueológico.

Para que conste donde interese firma la presente autorización el presidente de la Sociedad en San Sebastián a 15 de mayo de 1982




SOCIEDAD DE CIENCIAS
ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DEPARTAMENTO DE PREHISTORIA
Plaza Zuloaga (Museo)
DONOSTIA - S. SEBASTIAN
Tel. 422945 - 46

Fdo. Jesús Altuna



ASUNTO: Catas Cuevas de Lastur (Deba)
EMPLAZAMIENTO: Lastur
LOCALIDAD: Deba
INTERESADO: Iñigo Olarte Alberti



Esta Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico, oída la Junta Asesora de Patrimonio Arqueológico del País Vasco, ha resuelto, en lo que es materia de su competencia, autorizar las catas en las cuevas de Lastur-Deba

Dicha autorización se entenderá concedida previa presentación de los documentos que a continuación se relacionan en el plazo de 1 mes:

- Escrito de solicitud de autorización en el que se justifique el interés del trabajo proyectado.
- Ambito de actuación.
- Procedimientos a utilizar.
- Programa y calendario de trabajo.
- Certificación justificativa del Centro que avala la actuación, o programa en el que se halla integrado el solicitante.

Finalmente, se hace saber al interesado que habrá de cumplir las siguientes obligaciones:

- a) Comunicar a la Dirección de Patrimonio Histórico tanto el comienzo como la finalización de las tareas de campo.



Aspetiaren Hiru Zintzo eta
Leialako Udaltzara

Ayuntamiento de la M. N. y L.
Villa de Aspetia

96

Contra el acuerdo que a continuación se transcribe, podrá Vd. interponer ante el mismo órgano que lo ha adoptado, recurso de reposición en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la presente notificación; y contra la resolución expresa de dicho recurso de reposición, recurso contencioso-administrativo ante la correspondiente Sala de la Excm. Audiencia Territorial de Pamplona, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la notificación del acuerdo resolutorio del recurso de reposición; y en el plazo de un año, a contar de la fecha de interposición del recurso de reposición, el mismo recurso contencioso-administrativo, cuando no fuere expresa la resolución del recurso de reposición. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 52 y 58 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa de 27 de Diciembre de 1956, y sin perjuicio de que pueda hacer uso de cualesquiera otros si lo cree conveniente.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 30 de diciembre de 1982, adoptó un acuerdo que copiado literalmente dice así:

"Seguidamente el Ayuntamiento Pleno acordó por unanimidad de los asistentes, ceder el uso de locales en el antiguo Cuartel de la Guardia Civil a Argaski-Eskola y Grupo Antxieta, por el plazo de un año que podrá ser prorrogado, cesión que se limita para el logro de los fines actuales de ambas Instituciones Culturales, haciendo constar que se concretará la superficie de los locales cuyo uso se ceden."


Lo que le comunico a Vd. a efectos de notificación.

Dios guarde a Vd. muchos años.
Aspetia, 10 de enero de 1983
EL SECRETARIO,



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

KULTURA DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



Kultura, Hezkuntza, Kirolak eta Turismo moko Departamentuko Foru Diputatu Titularrak 1984ko maiatzaren 7ko data rekin honoko ebazpen hau eman du:

Antxeta Jakintza Taldeko Histori aurre Sailari, 70.000.- pezetako diru laguntza ematea, bere iharduerak gara ditzan Jesus Altuna jaunaren koordina ziopean.

Aipatu Taldeari kopuru hori ordaintzea, aurrkeontuko 06.01.471.002, - 03p., kontusailari gjaneratuz, aldezaurretik eralgipena zurituz eta koordinatzaile jaunaren aldeko txostena ikusi ondoren.

Zuri jakinerazten dizudana eza gut dezazun eta ondorioetarako.

El Diputado Foral Titualr del Departamento de Cultura, Educación, Deportes y Turismo, con fecha 7 de mayo de 1984, ha resuelto:


Conceder a Antxeta Jakintza Taldea, SEcción de Prehistoria, una ayuda económica de 70.000.- ₧, con destino al desarrollo de sus actividades con la coordinación de D. José Altuna.

Abonar la indicada cantidad al referido grupo con cargo a la p.p. 06.01.471.002 p.03, previa justificación del gasto e informe favorable del Sr. coordinador.

Lo que comunico a Vd. para su conocimiento y efectos.

Donostia, 1984ko maiatzak 8

IDAZKARI TEKNIKOAK



GIPUZKOAKO HISTORIAURREARI EGINDAKO EKARPENA

Aztarnategi arkeologikoak aurkitzeko lanak prospekzio-jardun nekezaren ondorio dira, eta normalean ez dute emaitza onik ematen. Hala ere, bete dituen 50 urte hauetan Antxieta Arkeologi Taldeak erakutsitako etengabeko ekinak 80 aztarnategi baino gehiago aurkitzea ahalbidetu du, Gipuzkoako Karta Arkeologikoan agertzen direnak.

Aurreneko aurkikuntzak berehala iritsi ziren, eta, gainera, modu ikusgarrian, 1969ko uztailean Andoni Albizurik eta Rafael Rezabalek Ekaingo kobazuloko labar-pinturak aurkitu baitzituzten, Unescoren Gizateriaren Ondare direnak.

Aurreneko hamarkadetan, prospekzioak testuinguru karstikoetara bideratu zituzten (haitzuloak eta amildegiak), baina, 1995etik aurrera, aire libreko aztarnategien bila ere aritzen dira, bai bailaretan, bai mendian.

Antxieta Arkeologi Taldearen aurkikuntzek Urola bailaran (eta Deba bailararen zati baten), Behe-paleolitotik hasita, historiaurrean bizi zirenei buruzko ezagutza erruz handitu dute. Aro horretako erreferente adierazgarriena, Euskal Herri mailan, Zestoa dagoen aire

libreko Irikaizko aztarnategia dugu. Ibairantz jaisten den mendi-magal zabala aukeratu zuten Achel aldiko ehiztari/biltzaile taldeek beren harrizko tresnak zizelkatzeko. Izaera bolkanikoa zuten harrizko eta jakineko formatu bateko lehengaien bila joaten ziren ingurura, ezaugarri horiek uztartzen zituztenak Urola bailarako zati horretan baino ez baitziren aurkitzen.

Neandertalen okupazioei dagokionez, Antxieta Taldearen lankidetzaz ezinbestekoa izan zen Amaldako indusketan, Altzolaraz bailaran, aztarnategia aurkitu zuena Jose Miguel Barandiaran izan bazen ere. Ondoren, Muster aldiko beste aztarnategi bat aurkitu dute Urkulun (Lastur, Deba), oraindik ikertzen ari direna.

Talde honek haitzuloetan aurkitutako aztarnen sekuentzia arkeologikoek Urola bailaran Goi-paleolitoko sekuentzia osoa egin ahal izatea ahalbidetu dute. Ekaingo Magdalen aldiko santutegiak berak aztarnategi arkeologiko oso garrantzitsua dauka atondoan, eta horren indusketak hainbat aldi kulturaletako materialak ekarri zituen argira: Chatelperron, Aurignac, Gravete eta Magdalen aldietakoak, hain zuzen ere. Era

Antxieta Arkeologi Taldea ha sumado 80 yacimientos a la Carta Arqueológica guipuzcoana. Los primeros hallazgos importantes llegaron pronto, como la cueva de Ekain, en 1969, declarada patrimonio de la Humanidad por la Unesco.

Antxieta Arkeologi Taldea has added 80 sites to Gipuzkoa's archaeological map. The first important findings soon arrived, such as the Ekain cave in 1969, declared a World Heritage Site by Unesco.

berean, bereziki esanguratsuak izan dira Ikeitz (Zestoa) eta Ezkuzta (Azpeitia) haitzuloetako aurkikuntzak, bertan bizi izan ziren gizakien portaera sinbolikoaren eta artistikoaren isla aurkitu baita. Goi-paleolitoko erregistro arkeologikoaren ia erabateko ezaugarria da aztarnak haitzuloetan aurkitzea; hala ere, Irikaizko magalean dago Gipuzkoan aurkitu diren aire libreko bi kokalekuetatik bat, biak ere aldi kultural berekoak, Gravete aldikoak, hain zuzen ere.

Azken glaziazioa amaitu ondoren lurraldea okupatu zuten azken ehiztari/biltzaile taldeak ere aztergai izan dituzte Antxieta Arkeologia Taldekoek. Linatzeta eta Ertxinako sekuentziak oso garrantzitsuak izan dira nabarmen hobetu zen klimaren baldintzetara moldatzen joan ziren gizarte hauek hobeto ezagutzeko. Aurrenekoari dagokionez, giza hobiratze bat ere badago. Testuinguru horretan, Erlo mendian (Azpeitia) egindako prospekzioek aldi horretako (Mesolito) aire libreko aztarnategi bat dagoela baieztatu dute, 800 metroko altueratik gora dagoena.

Ekoizle gizarteek ere bailararekiko eta giza talde hauei bailara horrek eskaintzen zizkien

Los lugares de las prospecciones también han aumentado, incorporando a las cuevas yacimientos al aire libre. Asimismo, los descubrimientos del grupo han aportado una gran cantidad de información sobre los habitantes de la zona durante las diferentes épocas de la prehistoria.

baliabideekiko interesa izaten jarraitu zuten, baina Neolito garaiak ekarritako aldaketa horren ondoren, gizakiaren ingurumenarekiko harreman mota berriek horren etengabeko aldaketa ekarriko dute, gaur egun jarraitzen duena. Linatzetako haitzuloan neolito garaiko indusketa-mailako erregistroa ere badago, eta Ertxina eta Karea gisako leizeak, berriz, Kalkolito garaiko eta Brontze aroko okupazioak dituzte.

Beste behin, Antxieta Arkeologi Taldearen ekimenek Erlo mendia onura agerian utzi zuten, ez soilik nekazal-abeltzain ekonomiari dagokionez, baita metalurgikoari ere, bai historiaurreko garaietan, bai historikoetan.

Testu bat idazterako orduan, beti ipintzen zaio arreta eta kontu gehiago amaierari. Baina, berriro ere, arkeologia zale sutsu talde honek lana erraztu digu. Ez dago Antxieta Arkeologi Taldearen 50. urteurrenari gorazarre egiteko testu honi amaiera emateko modu hoberik beren azken aurkikuntzak aipatzea baino: Zestoako Danbolinzulo eta Erlaitz haitzuloetakoak, hain zuzen ere; berauetan paleolito garaiko animalien pintura figuratiboak eta grabatuak aurkitu dituzte, hurrenez hurren.

Prospection sites have also increased, with outdoor sites now, as well as caves. The findings of the group have also provided a great deal of information about the inhabitants of the area during the different prehistoric periods.





Bibliografía

Altuna, J., Mariezkurrena, K., Armendariz, A., Barrio, L., Peñalver, X., Zumalabe, F.J. 1982. **Carta Arqueológica de Gipuzkoa**. Munibe 34 (1-3). Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia.

Altuna, J., Armendariz, A., Etxeberria, F., Mariezkurrena, K., Peñalver, X., Zumalabe, F.J. 1995. **Carta Arqueológica de Gipuzkoa II. Cuevas**. Munibe, Suplemento 10. Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia.

Arrizabalaga, A. (ed) 2005. **Diario Personal. Volumen I (1917-1936). Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio**, (Autor: J. M. de Barandiarán), Sara Bilduma 6, 2 tomos, 789 pp., Fundación José Miguel de Barandiarán, Astigarraga.

Arrizabalaga, A. (ed) 2009. **Diario Personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco Continental**, (Autor: J. M. de Barandiarán), Sara Bilduma 8, 2 tomos, 1111 pp., Fundación José Miguel de Barandiarán, San Sebastián.

Ceberio, M. 2011. **Historiaurrearen aventura Gipuzkoan = La aventura de la Prehistoria en Gipuzkoa**. 90 pág. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.





PERTSONAK ETA AURKIKUNTZAK: 50 URTEKO KRONIKA

Antxieta Arkeologi
Taldearen artxibotik

1965-1975



1969 - Andoni Albizuri (Katxo) eta Rafael Rezabal

HASIERA

Antxieta Arkeologi Taldearen istorioa Andoni Albizuri eta Rafael Rezabalekin hasten da 1965. urtean.

Gogo biziak, orokorrean euskal kulturaren duen ezaguerak eta zehazki gizakiak gure haranean eduki duen eboluzioak bultzatzen du Andoni Albizuri gure arbasoen arrasto eta aztarnak bilatzera, horretarako, Rafael Rezabal sartzen du taldean lehenengo eta ondoren, beste lagun batzuk aldizka.

Ohizkoak

Andoni Albizuri " Katxo " (1935-1983)
Rafael Rezabal

Laguntzaileak

Joakin Elorza
Luziano Ansoalde (1935-1993)
Joxe Aranburu " Txata "

Dena egiteko dagoenean EKAIN aurkitzen dute

Larunbata edo igandean mendira ateratzen dira aztarnak aurkitu nahiean. Asteazkenean zehar, lana egiteaz gain, beraien denbora librean astebukaeran zehar aurkitu dituzten aztarnak sailkatzen eta garbitzen pasatzen dute, planoetan aztarnen aurkikuntzak non izan diren kokatuz eta Aranzadi Zientzia Elkartera entregatuko duten estudiorako dokumentazioa prestatuz.

Ez dute laguntza ekonomikorik jasotzen, gastu guztiak beraien poltsikotik ordaintzen

dituzte. Beraien lana azterlariak izatea da, amateur moduan. Beraien laginetan 30 x 40 cm gehienera aztertzerantz iristen dira. Zerbait aurkitu orduko, gelditu eta Aranzadi Elkarterari jakinarazten diote.

Jose Miguel Barandiaranek, modu berezian, beraien lana goraipatu eta adre ematen die. Egun batean, Andoni eta Rafael zientzialari komunitatea eta Euskal Herria zur eta lur uzten dituzte berebiziko aurkikuntza batekin. 1969. urteko uztailaren 1ean Ekain aurkitzen dute.

Andoni Albizuri y Rafael Rezabal dedican su tiempo libre a la búsqueda de yacimientos prehistóricos y restos fósiles. No reciben ninguna subvención económica y todos los gastos corren de su bolsillo. Jose Miguel Barandiaran les anima para que sigan buscando y no cesen en su empeño, y de repente, el uno de julio de 1969, consiguen dejar a la comunidad científica y a Euskal Herria boquiabierta. ¡Han encontrado Ekain!

Andoni Albizuri and Rafael Rezabal spend their free time looking for fossils and prehistoric sites. They receive no financial aid and pay all their own costs. Jose Miguel Barandiaran encourages them to keep looking and not give up, and suddenly, on July 1st 1969, they leave the scientific community and Euskal Herria speechless. They find Ekain!

11 aztarnategi berri

Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
1 550	1968-03-03	AINZULO	Arzallus	ERREZIL	Haitzuloa
2 553	1969-06	EKAIN		DEBA	Haitzuloa
3 556	1969	EKAIN IV		DEBA	Haitzuloa
4 538	1971-04-15	KOBA ZARRA	Lastur	DEBA	Haitzuloa
5 559	1971	AITZORROTZ II	Erdoizta	ERREZIL	Haitzuloa
6 618	1973	AITZE	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
7 562	1973-01-03	ARNO I	Astigarribia	MUTRIKU	Haitzuloa
8 635	1973-11-11	ERTXIÑA	Ertxin	ZESTOA	Haitzuloa
9 537	1974	TXOMINEN KOBA	Lastur	DEBA	Haitzuloa
10 536	1974-01-13	GOIKOLA BERRI	Lastur	DEBA	Haitzuloa
11 539	1974-03-17	AITZGAIZTO	Lastur	DEBA	Haitzuloa

En la década 1965-1975 los hallazgos no se limitan a Ekain ya que se encuentran 11 yacimientos nuevos.

From 1965-1975 the findings are not limited to Ekain as they discover 11 new deposits.

1965-1975



Hartzak - Ekainen erreplika

SORRERAKOAK



1965-1975



1. Rafael Rezabal eta Luziano Ansoalde
2. Andoni Albizuri (Katxo) eta Joakin Elorza
3. Joxe Aranburu (Txata) baserritarrekin
4. Andoni Albizuri (Katxo), Luziano Ansoalde eta gazte batzuk
5. Andoni Albizuri (Katxo) eta Luziano Ansoalde
6. Andoni Albizuri (Katxo), Luziano Ansoalde eta gazte batzuk



EKAIN AURKITU ONDOREN



Rafael Rezabal

"Sastarrainen hango baserritarrari galdetu genion, ea ezagutzen al zuen han zulorik, sasi artean, urkien inguruan-eta. Izan ere, inguruak aproposa zirudien eta horregatik joan gintzaizkion galdezka. Eta hark baietz, untxiak zirrikitu horietako batetik ezkututzen zirela. Baserritarrek horrelakoen berri izaten dute. Topatu genuen zuloa eta han hasi ginen handitzen; hura ezkerretik eta ni eskubitik, harriak kentzen. Aire korrontea sumatu genuen. "Andoni! Hemen zuloa ziok!", esan nion. "Zer egingo diagu?", galdetu nion, eta hark, erantzun: "Aurrera! Zer egingo diagu, ba!". Orduan apenas materialik ere izaten genuen...

Rafael Rezabal narra el momento en el que descubrieron la cueva de Ekain, él y Andoni Albizuri. Preguntaron en un caserío cercano si había alguna cueva, obtuvieron un sí como respuesta y se pusieron a rastrear un agujero que les llevó a descubrir la cueva de Ekain, uno de los referentes prehistóricos del País Vasco.

baina aurrera egin genuen. Ni txikia izan, eta zuloan sartu eta aurrera egin nuen, arrastaka, bidea irekitzen. Lurra jo nuenean, estalagmitak ikusi nituen, eta uraren soinua, bai ederra! Dagoeneko barruan, margotuta egongo ote zen pentsatzen hasi ginen, eta bat alde batetik eta bestea bestetik abiatu ginen. Halako batean, ezkerreara begiratu nuen eta zaldi pila hura ikusi nuen. Oihu ikaragarria bota nion eta Andonik pentsatu omen zuen: "Han, erori duk!". Ez, ez nintzen erori, baina ia-ia, atzeraka. Hura poza! Gero zaldi gehiago ikusi genituen; bisontek, hartzak, eta zaldi gehiago. Emozioak gain hartuta, ezin izan genuen barruan gehiago egon."

Rafael Rezabal narrates the moment when Andoni Albizuri and he discovered the Ekain cave. They asked in a nearby farmhouse if there was a cave, and they got an affirmative answer so they began to search a hole which led them to discover the Ekain cave, one of the benchmarks of prehistory in the Basque Country.



1969 Ekain aurrean



1969 Ekain aurrean



1969 Ekain aurrean Munibe Taldearekin

1976-1985

Ohizkoak

Andoni Albizuri " Katxo " (1935-1983)
Rafael Rezabal

1975

Iñigo Olarte
Migel Angel Aizpuru
Jexux Lopetegi

1978

Jose Inazio Arrieta
Andrex Maiz
Aitor Aranguren
Joxe Mari Luengo
Patxi Uranga
Jabier Lazkano

1982

Joseba Irureta
Andoni Irureta



Laguntzaileak

1975

Peio Arenas
Kurutx Larrañaga
Juan Peña
Ion Aizpuru
Jexux Sarasua
Pako San Sebastian

1982

Karlos Larrañaga
Joxe Angel Larrañaga
Joxe Mari Amenabar

Gazte gogotsuen sarrera, aurkikuntza kopurua handitzen da

Andoni eta Rafaelak beraien aurkikuntzekin jarraitzen dute, ez antzinako aztarnenak bakarrik, baizik eta gazte gogotsuenak, hamar urte lehenago hasi zuten lanarekin jarraituko dutenak.

1975. urtean lehen gazte taldea gehitzea lortu zuten. 1978an aurpegi berriekin taldea handitzen da. 1982an hirugarren gazte talde bat iristen da.

Andoni eta Rafael gazteekin lanean aritzen dira, lehenengo Errailan eta ondoren Altzolaraz haranean. Koben lilura energiaz eta ilusioz beteriko gazte horiei transmititzeaz arduratzen dira. Batzuk geratu egingo dira, beste batzuk joan eta bakan batzuek noizbehinka kolaboratuko dute.

Laginen neurriak handitu egiten dira, 30x40 cm izatetik 100x100 cm izatera. Jesus Altuna eta Koro Mariezkurrenak aurkikuntzak kudeatzen dituzte eta baita lan taldea ere.

Andoni y Rafael prosiguen buscando vestigios prehistóricos, y al mismo tiempo, jóvenes entusiastas se incorporan al grupo. Trabajan con la idea de transmitir la magia de las cuevas a grupos de jóvenes plenos de energía y vitalidad. Los menos se quedarán, otros se marcharán y algunos colaborarán ocasionalmente.

1980tik 1985era, gazte hauek Jesus Altunak industutako Amaldako Koban lagundu eta ikasten dute.

Aldi berean, beraien lana eta dedikazioak dagokion errekonozimendua jasotzen hasten da: 1982ko maiatzaren 15ean, Aranzadi Zientzia Elkarteak Antxieta taldeari Gipuzkoako beste kobetan historiaurreko laginak aurkitzea baimentzen dio; 1983ko urtarrilaren 10ean, Azpeitiko Udalak Antxieta Arkeologi Taldeari Guardia Zibilen Kuartela izandako etxean lokal bat uztea erabakitzen du aho batez; 1984ko maiatzaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 70.000 pezetako diru laguntza ematen dio taldeari.

Hamarkada honetako gauzarik aipagarriena taldea bermatu egiten dela da, espiritu berritua duen oinarriarekin finkatu eta aukikuntzak nabarmenak dira...

1983an Andoni Albizuri hiltzen da, taldearen arima eta motorra.

1976-1985. Andoni and Rafael continue looking for prehistoric remains, and at the same time encourage young enthusiasts to join the group. They work with the idea of conveying the magic of caves to groups of young people who are full of energy and vitality. A few of them stay, others leave and some collaborate occasionally.

49

aztarnategi berri

Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
12 560	1976	ERRALLA	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
13 ???	1976-11-11	ALABIER I		AZPEITIA	Haitzuloa
14 554	1977	EKAIN II		DEBA	Haitzuloa
15 557	1978	ERLAITZ		DEBA	Haitzuloa
16 ???	1978-04-12	AITZ OITA	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
17 587	1978-05-14	AITZELAR	Alzolaraz	ZESTOA	Estalpea
18 551	1979	EZKUZTA		AZPEITIA	Haitzuloa
19 558	1980	DANBOLINZULO	Ertxin	ZESTOA	Haitzuloa
20 584	1980	BEONDEGI II		ALBIZTUR	Haitzuloa
21 593	1980	GILTZARRITURRI		AIA	Estalpea
22 645	1980	ERRENTXORTA		BEIZAMA	Haitzuloa
23 ???	1980	IRURE	Itziar	DEBA	Haitzuloa
24 647	1980	GURUTZEPE	Xoxote	AZPEITIA	Haitzuloa
25 653	1980	KOBALDE		ALBIZTUR	Haitzuloa
26 655	1980	KOBA LOTX	Nuarbe	AZPEITIA	Haitzuloa
27 663	1980	ZALETXEPE		BEIZAMA	Haitzuloa
28 636	1980-06-02	UMELARRE		AIA	Haitzuloa
29 682	1980-11-23	KOBA TXIKI	Aizarna	ZESTOA	Haitzuloa
30 629	1980-11-23	KOBA TXIKI II	Aizarna	ZESTOA	Haitzuloa
31 510	1981	AIE ZELAI	Erlo	AZPEITIA	Haitzuloa
32 548	1981	URTIAGAKO LEIZEA	Itziar	DEBA	Haitzuloa
33 549	1981	LARRABIEL	Itziar	DEBA	Haitzuloa
34 564	1981	ARBELAITZ I	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
35 561	1981	ASTUIPEKO ESTALP.	Alzola	AIA	Haitzuloa

Se amplían las medidas de las catas, que pasan de 30 x 40 cm a 100 x 100 cm. Jesus Altuna y Koro Mariezcurrrena gestionan los hallazgos y el trabajo del grupo. En la década 1976-1985 se producen 49 nuevos hallazgos de yacimientos arqueológicos.

Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
36 565	1981	ARBELAITZ II	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
37 566	1981	ARBELAITZ III	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
38 583	1981	BEONDEGI I		ALBIZTUR	Estalpea
39 588	1981	ALABIER II		AZPEITIA	Haitzuloa
40 651	1981	ITURRIAGATXO		AZPEITIA	Haitzuloa
41 643	1981-10	BEONDEGI III		ALBIZTUR	Haitzuloa
42 12.109	1981	URBIGAIN		AZPEITIA	Aire librea
43 644	1982-09-19	BURNIKURUTZ		AIA	Haitzuloa
44 677	1983-02-05	EKAIN V		DEBA	Haitzuloa
45 679	1983-04-17	AIERTZA		BEIZAMA	Haitzuloa
46 638	1983-06-19	AMALDA II	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
47 639	1983-07-24	AMALDA III	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
48 672	1983-07-24	AMALDA IV	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
49 549	1983-10-01	AITZETA	Mendikute	ALBIZTUR	Haitzuloa
50 678	1984-04-08	UEI	Itziar	DEBA	Haitzuloa
51 681	1984-05-20	ERTXIÑA II	Ertxin	ZESTOA	Haitzuloa
52 673	1984-06-03	AMALDA V	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
53 660	1984-09-23	AUTZO	Aizarna	ZESTOA	Haitzuloa
54 675	1984-11-18	AMALDA VI	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
55 680	1985-01-27	AUTZO-GAINA	Aizarna	ZESTOA	Haitzuloa
56 670	1985-02-03	ERRALLA II	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
57 637	1985-02-10	ASTUI-GAINA	Aizarna	ZESTOA	Haitzuloa
58 674	1985-03-02	AMALDA VII	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
59 692	1985-04-14	AGOR-ERREKA	Alzolaraz	ZESTOA	Haitzuloa
60 628	1985-07-13	IERTZA	Itziar	DEBA	Haitzuloa

Trial pit sizes grow from 30 x 40 cm to 100 x 100 cm. Jesus Altuna and Koro Mariezkurrena conduct the findings and the group work. From 1976-1985 there are 49 new archaeological locations.



1



2



3

1976-1985



1. AJTA - Barandiaran 1980
2. EZKUZTA - Azpeitia
3. EZKUZTA - Azpeitia
4. AMALDA - Zestoa
5. AITZEKO KOBIA - Zestoa
6. AINTZULO - Errezil
7. URTIAGAKO LEIZEA - Itziar



1986-1995



Ohizkoak

Rafael Rezabal
Iñigo Olarte
Jose Inazio Arrieta
Andrex Maiz
Jabier Lazkano
Joseba Irureta
Andoni Irureta

1990

Jabier Maiz
Fernando Bastida

Laguntzaileak

Migel Angel Aizpuru
Aitor Aranguren
Patxi Uranga

1990

Andoni Olaizola
Gorka Alberdi

Taldearen eta proiektuaren bermatzea

Antxieta Arkeologi Taldeak 20 urteko historia du jada eta bere hirugarren hamarkada sendotasunez hasten du, ezagutza handiago batekin eta bide onetik doazen uste osoarekin.

Oso gazte hasi zirenek esperientzia hartu dute, beraien ilusioa mantenduz eta talde tinko bat osatuz.

Hasierako dinamikarekin jarraitzen dute, Andoni eta Rafaelengandik jasotakoa hain zuzen ere: astean zehar lana egin igande goizetan mendira atera eta aztarna eta arrasto berriak aurkitzeko. Astearte gauetan, bilera. Asteburuko aztarnak garbitu eta dokumentatu, plano berriak egin, dokumentazioa garbira pasa eta aurkituriko materialak Aranzadira eramateko prestatu.

Antxieta Arkeologi Taldea acumula ya una historia de 20 años e inicia su tercera década, 1986-1995 de un modo consolidado, con un mayor conocimiento y con el convencimiento de estar en el buen camino. Quienes se iniciaron muy jóvenes han adquirido experiencia, refrescado su ilusión y forman un grupo compacto.

1983tik bileretarako azpiegitura daukate: Guardia Zibilen kuartela zen etxean Azpeitiako Udalak lagaturiko lokal bat.

Denborarekin, beraien lanen errekonozimendua handitzen doa:

Antxieta Arkeologi Taldeak eginiko aurkikuntzak Gizpukoako Arkeologia Kartan agertzen dira, Aranzadi Zientzia Elkartek eginiko eta publikaturiko lanean.

Eusko Jauriaritzako Ondare Historiko-Artistikoko Zuzendaritzak Antxieta taldeari Lastur-Debako kobetan laginak egitera baimentzen du.

Jesus Altuna eta Koro Mariezkurrenak, Aranzadi Elkarteko kideek taldearen aurkikuntzak kudeatzen jarraitzen dute.

Antxieta Arkeologi Taldea now has 20 years' experience and begins its third decade, from 1986 to 1995 in a consolidated way, with more knowledge and the conviction of being on the right track. Those who started at a young age have gained experience and enthusiasm and they are part of a compact group.

13 aztarnategi berri

Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
61 540	1986-03-23	ARBIL	Lastur	DEBA	Haitzuloa
62 ???	1986-06-08	URTIAGAKO TXAPALDAK Salbatore Ermita ingu- ruan	Itziar	DEBA	Aire librea
63 609	1986-07-13	ZUPIRA	Erdoizta	ERREZIL	Haitzuloa
64 606	1986-10	JATURABE	Araotz	OÑATI	Haitzuloa
65 610	1986-10-19	LEPASORO		ZIZURKIL	Haitzuloa
66 667	1987-06-12	ZOPITE II		ALKIZA	Haitzuloa
67 666	1987-11-15	ZOPITE I		ALKIZA	Haitzuloa
68 603	1989-06-25	BELAKUM II		ALKIZA	Haitzuloa
69 604	1989-10-01	BELAKUM III		ALKIZA	Haitzuloa
70 519	1990-04-29	BAIO		ZESTOA	Haitzuloa
71	1995-09	ERLAITZ II		ZESTOA	Haitzuloa
72	1995-11-12	SALETXE ZAHAR	Ertxin	ZESTOA	Haitzuloa
73	1995-12-17	SALETXE ZAHAR II	Ertxin	ZESTOA	Haitzuloa

13 nuevos hallazgos arqueológicos durante la década 1986-1995. Estos y los anteriores hallazgos entran a formar parte de la Carta Arqueológica de Gipuzkoa, trabajo elaborado y publicado por la Sociedad de Ciencias Aranzadi.



13 new archeological findings from 1986-1995. These and previous findings become part of Gipuzkoa's archaeological map, work produced and published by the Aranzadi Science Society.




1



2

1986-1995



1. SALETXE ZAHAR - Zestoa
2. SALETXE ZAHAR - Zestoa
3. BAIO - Zestoa
4. LARRABIEL-II - Itziar



1996-2005



Ohizkoak

Rafael Rezabal
Iñigo Olarte
Jose Inazio Arrieta
Andrex Maiz
Jabier Lazkano
Joseba Irureta
Andoni Irureta
Jabier Maiz

Irikaitzek aztarnen aurkikuntzen eboluzioa irudikatzen du

Jasotako esperientziak fruitu berriak ematen ditu. Taldearen aurkikuntzak aire librean zundaketak egitera zuzentzen ditu, kobetan aurkituriko aztarna fosilak baino zaharragoak diren arrastoak aurkituz, Irikaitzen, Zestoan aurkiturikoak frogatzen duen bezala, gizakiak aire librean bizi litezkeela.

Egia esateko, Irikaitzek aurrera pauso bat irudikatzen du aurkikuntzak kobetan bakarrik egin daitezkeela finkatzen duen ideia baztertzen baitu.

Finantzaketari dagokionez ere eboluzio bat dago. Azpeitiako Udalak eta Gipuzkoako Foru

Aldundiak Antxieta Arkeologi Taldeko gastuak babesten dituzte. Bi erakundeek, gainera, gogo onez parte-hartzen dute taldearekin. Antxietak eginiko lanak esker ona jasotzen ari dela nabarmena da.

Zorroztasun, zehaztasun eta kalitate handiagoarekin lana egiten da. Kantitatea bigarren maila batera pasatzen da. Taldea bere heldutasunean dago, badakite zer nahi duten eta bateratua eta trinkoa mantentzen da.

Jesus Altuna eta Koro Mariezkurrenak taldea zientifikoki kudeatzen jarraitzen dute.

El grupo encamina sus pasos hacia la búsqueda de yacimientos prehistóricos al aire libre, que pudieran dar como resultado hallazgos de restos fósiles aún más antiguos que los de las cuevas, como queda demostrado con lo encontrado en Irikaitz, Zestoa, un asentamiento humano al aire libre que supera en el tiempo al resto de los hallazgos.

The group decides to start looking for prehistoric sites outdoors. What they find is even older than the remains of the caves, as is evidenced by the findings in Irikaitz, Zestoa, an outdoor settlement older than the rest of the findings.

7 aztarnategi berri

Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
74-0	1996-01-15	IRIKAITZ-0		ZESTOA	Aire librea
74-1	1996-01-15	IRIKAITZ-1		ZESTOA	Aire librea
74-2	1996-01-15	IRIKAITZ-2		ZESTOA	Aire librea
74-3	1996-01-15	IRIKAITZ-3		ZESTOA	Aire librea
74-4	1996-01-15	IRIKAITZ-4		ZESTOA	Aire librea
74-5	1996-01-15	IRIKAITZ-5		ZESTOA	Aire librea
74-6	1996-01-15	IRIKAITZ-6		ZESTOA	Aire librea
74-7	1996-01-15	IRIKAITZ-7		ZESTOA	Aire librea
74-8	1996-01-15	IRIKAITZ-8		ZESTOA	Aire librea
75	1996-06-02	IKEITZ		ZESTOA	Haitzuloa
76	1999-04-11	URKULU	Lastur	DEBA	Haitzuloa
76-1	1999-04-11	URKULU-P1	Lastur	DEBA	Haitzuloa
76-2	1999-04-11	URKULU-P2	Lastur	DEBA	Haitzuloa
76-3	1999-04-11	URKULU-P3	Lastur	DEBA	Haitzuloa
77	1999-10-31	LINATZETA	Lastur	DEBA	Haitzuloa
78	2000-11-11	ARNAILETA	Arzailuz	ERREZIL	Haitzuloa
79-1	2003-03-09	LOIOLA I	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
79-2	2003-06-15	LOIOLA II	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
79-3	2004-01-11	LOIOLA III	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
79-4	2004-04-25	LOIOLA IV	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
79-5	2004-06-27	LOIOLA V	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
79-6	2005-01-10	LOIOLA VI	Loiola	AZPEITIA	Aire librea
80	2005-01-15	AITZGAIZTO II	Lastur	DEBA	Haitzuloa

En la década de 1996-2005 se producen 7 nuevos hallazgos. El asentamiento de Irikaitz en Zestoa representa un paso hacia delante y deja atrás la idea inicial de que los hallazgos sólo pudieran darse en cuevas.



Xabier Lazkano Irikaitzen

From 1996-2005 there are 7 new findings. Irikaitz settlement in Zestoa represents a step forward and opposes the initial idea that the findings could only occur in caves.

1. LOIOLA-V - Azpeitia
2. LOIOLA-I - Azpeitia
3. LOIOLA-II - Azpeitia
4. URKULU - Lastur





1. ASTASORO - Zestoa
2. SORGINZULO - Aia
3. ARNAILETA - Errezil





MATERIAL BATZUK

1. LOIOLA-I - Azpeitia
2. LOIOLA-III - Azpeitia
3. URKULU - Lastur
4. ARNAILETA - Errezil
5. LOIOLA-II - Azpeitia
6. URKULU - Lastur
7. LOIOLA-IV - Azpeitia
8. LOIOLA-V - Azpeitia





6



7



8

2006-2015

Ohizkoak

Rafael Rezabal
Iñigo Olarte
Jose Inazio Arrieta
Andrex Maiz
Jabier Lazkano
Joseba Irureta
Andoni Irureta
Jabier Maiz

2009

Xabier Azkoitia

2015

Iñigo Arizaga
Igone Elejalde
Ion Uranga



Aztarnategien ugaritasuna, begiratzeko jakin behar da

Denborak arrazoia eman eta kendu egiten du. Kasu honetan, taldekideen alde dago, gure geografian arrasto arkeologiko ugari daudela mantentzen baitute, baina aurkitzen jakin behar da. Horretan dago giltza. Esperientzia, ezagutza eta urteen joanean garaturiko intuizioa dira bidea zehazten dutenak.

Azken hamarkada honetan, urte askoren ondoren, taldekide berriak gehitu dira.

Lehenengo berrogeita hamar urteak betetzeko ateetan, Antxieta Arkeologi Taldea hiru

aldiz izan da albiste 2014 eta 2015ean zehar. Hiru aurkikuntza albiste izan dira daukaten garrantziagatik. Aurretik ezagutzen ziren hiru barrunbetan, arkeologikoki balio handia duten aztarnak aurkitu dituzte, zehazki Ezkuztan (Azpeitia), Danbolinzulon eta Erlaitzen (Zestoa).

Gaur egun, Antxieta Arkeologi Taldea Maria Jose Iriarte¹ eta Alvaro Arrizabalagak² zuzentzen dute, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak.

¹ IKERBASQUE (Basque Foundation for Science) eta Euskal Herriko Unibertsitatea

² Euskal Herriko Unibertsitatea

Los integrantes del grupo, concluyen que hay evidencias prehistóricas en muchos lugares de nuestra geografía, pero que hay que saber hallarlos. Ahí radica la clave. La experiencia, el conocimiento y la intuición desarrollada a base de años son los que te marcan el camino.

Team members conclude that there is prehistoric evidence in many places in our country, but it is essential to know how to find it. The experience, knowledge and intuition developed over the years show the way.

9 aztarnategi berri


Zkia	DATA	IZENA	AUZOA	UDALA	MOTA
81-0	2005-07	IKULUTEKO GAIÑE	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-1	2006-10-01	IKULUTEKO GAIÑE-1	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-2	2006-10-01	IKULUTEKO GAIÑE-2	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-3	2006-10-29	IKULUTEKO GAIÑE-3	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-4	2007-10-28	IKULUTEKO GAIÑE-4	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-5	2007-10-28	IKULUTEKO GAIÑE-5	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
81-6	2008-05-04	IKULUTEKO GAIÑE-6	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
82-1	2007-03	KAREA-A	Iturriotz	AIA	Haitzuloa
82-2	2007-03	KAREA-B	Iturriotz	AIA	Haitzuloa
83	2012-03-17	ASURTZU-1	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
84	2012-03-10	ASURTZU-2	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
85	2006	ASURTZU-3	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
86	2012-03-03	ASURTZU-4	Erlo	AZPEITIA	Aire librea
87	2014-08-31	INDITURRI	Lastur	DEBA	Estalpea
88	2015-03-19	ARRILUZE	Endoia	ZESTOA	Haitzuloa
88	2015-03-19	ARRILUZE-II	Endoia	ZESTOA	Haitzuloa

Antxieta Arkeologi Taldea ha sido noticia en al menos tres ocasiones durante 2014 y 2015 por haber hallado restos de gran valor arqueológico: Ezkuzta (Azpeitia), Danbolinzulo y Erlaiz (Zestoa).

Antxieta Arkeologi Taldea has been in the news on at least three occasions during 2014 and 2015 for having found remains of great archaeological value: Ezkuzta (Azpeitia) and Erlaiz Danbolinzulo (Zestoa).

2006-2015

AITZ GAIZTO II - Lastur



IKULLUTEKO GAIÑE - Erlo, Azpeitia



IKULLUTEKO GAIÑE - Erlo, Azpeitia



AIZPURUTXO - Azkoitia



TXOMINEN KOBA - Lastur





ERTXINA- Zestoa



AITZ GAIZTO II - Lastur



AITZ GAIZTO II - Lastur

MATERIAL BATZUK

1. EZKUZTA - Azpeitia
2. EZKUZTA - Azpeitia
3. EZKUZTA - Azpeitia
4. EZKUZTA - Azpeitia
5. EZKUZTA - Azpeitia





3



4



5

MATERIAL BATZUK



6

- 6. AITZ GAIZTO II - Lastur
- 7. IKULUTEKO GAIÑE - Erlo, Azpeitia
- 8. IKULUTEKO GAIÑE - Erlo, Azpeitia
- 9. IKULUTEKO GAIÑE - Erlo, Azpeitia
- 10. ASURTZU IV - Erlo, Azpeitia
- 11. ASURTZU IV - Erlo, Azpeitia
- 12. ASURTZU IV - Erlo, Azpeitia



7



8




9



10



11



12



AURKIKUNTZA AZPIMARRA- GARRIENAK



Antxieta Arkeologi
Taldearen artxibotik

EKAIN





RAFAEL REZABAL ETA
ANDONI ALBIZURI

AURKIKUNTZA DATA:

1969-07-01

NORK:

Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal
Antxieta Arkeologi Taldekoak

UDALA:

Deba

AUZO:

Sastarrain erreka

MOTA:

Haitzuloko labar artea

GARAIA:

Goi Paleolitikoa



EZKUZTA



AURKIKUNTZA DATA:

1979 / 2012 / 2014

NORK:

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

UDALA:

Azpeitia

MOTA:

Haitzuloa - Higitarri artea

GARAIA:

Goi Paleolitikoa



IRIKAITZ



AURKIKUNTZA DATA:

1996-01-15

NORK:

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

UDALA:

Zestoa

MOTA:


Aire libreko aztarnategia

GARAIA:

Behe Paleolitikoa



DANBOLINZULO





Ezkerretik eskubira:
Iñigo Arizaga, Andrex Maiz,
Jabier Maiz, Xabier Azkoitia,
Jabier Lazkano, Iñigo Olarte
eta Jose Inazio Arrieta

AURKIKUNTZA DATA:

1980 / 2014-12-14

NORK:

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

UDALA:

Zestoa

MOTA:

Haitzuloko labar artea

GARAIA:

Goi Paleolitikoa



ERLAITZ





Ezkerretik eskubira:
Xabier Azkoitia, Jose Inazio
Arrieta, Jabier Lazkano, Iñigo
Olarte, Iñigo Arizaga, Jabier
Maiz eta Andrex Maiz

AURKIKUNTZA DATA:

1978 / 2015-01-04

NORK:

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

UDALA:

Zestoa-Deba

AUZOA:

Sastarrain erreka

MOTA:

Haitzuloko labar artea

GARAIA:

Goi Paleolitikoa





TESTIGANTZAK



Antxieta Arkeologi
Taldekoak



“Elkartera joaten ginen zapatuetan afaltzera, baina gero etxera, jai goizean “zita” zeukan eta! Jaiero!”

Maria Jesus Arregi

Andoni Albizuriren alarguna

“Marije, ez dakizu zer ikusi dugun Ekain barruan!”. Ez zait bizitzan ahaztuko haren inpresioa. Akordatuta bakarrik hunkitu egiten naiz. Berak aurkitu nahi zuena zen. Horren atzetik ibili eta bilatu! Sinistu ezinik geratu zen. Misterio bat bezala zen. Berak sentitzen zuenari erantzun bat. Beti Izarraitzera begira... Nerbioso ibili zen ondoren. Oso kontziente zen zer topatu zuten, eta inpresionatuta zegoen. Ez zen bera. Ekaingo aurkikuntzak irentsi egin zuen.

Antxieta elkartean ezagutu ginen. Han juntatzen zen lagunekin, eta gu hara joaten ginen koruko entseguakegitera. Ni beti kantuan. Handik, badakizu, kafetxo bat hartzera... uste gabeko harremana egin nuen berarekin, ondo konektatzen genuen. Korokoek afariak egiten genituen, eta behin, Gau Txorin koadrilan geunden dantzan eta Rafael eta Andoni han zeuden dantza-eske. Bizian sartu gabe zeuden, baina niregana arrimatzeko modu bakarra dantza zen. Haiek ikusi nituenean, pentsatu nuen: “Anda la ostra!”. Etorri egin zen eta etxera lagundu, eta, jakina...

Sekulako harremana egin genuen. Bat egin genuen. Haren sakontasunean sartzen nintzen. Nik ere galdera mordo bat nituen, nire mundua Andonirentzat oso diferentea bazen ere. Adibidez, Iruñera kantatzera joan ginen eta saria emanda, aurrez erabakita zegoela

jakin genuen; Iñaki Gabilondo kazetariak esan zigun, Luc Barretorentzat zela. Guk, orduan, ez genuela kantatuko esan genuen, eta, hark, berriz, hala ere kantatzeko. Barreto entseatzen hasi zenean, norbait txistuka hasi zen. Andoni eta Rafael ziren. Beno, Andonik ez zekien txistu egiten eta Rafa ari zen, txistuka, artzainen moduan. Hura eskandalua! Ezetz baina baietz, azkenean, derrigortuta, baina kantatu genuen. Eta irabazi! Javier Madina azpeitiarrak bigarren egin zuen eta Barretok, hirugarren. Gu joaten ginen leku guztietara han genituen atzetik. Kontrolatzera. Jeloskor. Euskal Herriko Edith Piaf nintzela zion Rafaelek!

Bat eginda geunden, bai... igande goizetan izan ezik. Gu ohean biok, gortina zabaldu eta Xoxoteko mendi-punta ikusten zen, izarrez josita zerua, han egoten ginen, sakonean. Elkartera joaten ginen zapatuetan afaltzera, baina gero etxera, jai goizean “zita” zeukan eta! Jaiero! Eta ni zapatu oro haserre. Izarrei begira. Bizi izango balitz oraindik hor ibiliko zen, ni igandean etxean utzita! Rafael etortzen zenean, horiek begiradak botatzen nizkionak! Niri Guardia Zibilari baino beldur handiagoa zidan!

Gure etxeko ganbaran juntatzen ziren; lehenengo etxean, baina gero ganbara txukundu genuen, eta han. Patiora leihoa zuen eta mahaia ipini genuen. Rafael eta besteek ondo hartzen ninduten. Rafak esaten zidan Kalkutako Teresa eta Thatcher nintzela pertsona berean. Oraindik ere Martutenera joaten naiz, ia 20 urtez, eta egia da ondoen hango presoekin konpontzen naizela. Baina gero latigoa ateratzen omen dut!

Haitzuloetako kontuak esplikatzen zizkidaten, interesatzen zitzaidan, baina batzuetan kokoteraino egiten ninduen. "Egingo al dugu ez dakit zer asteburu honetan?", galdeztzen nion nik, eta hark, "Marije, ezin dut, hau eta beste hura egin behar dugu...". Batzuetan, eguerdian ezta etorri ere. Eta beste batzuetan, egun osoan ere ez! Behin egun osoan falta eta ageri ez, arrastorik ez. Rafaeli deitu eta hark ezer ez zekiela. Beste lagun bati deitu eta hark ere ez. Gaua iristean, desesperatuta, neure onetik irtenda, kotxea hartu eta bila atera nintzen. Kobazuloren batean zerbait pasatu zitzaiola pentsatu nuen. Granada Errekara joan nintzen eta erabat beldurtu zen han ikusi ninduenean. Taxistari esan omen zion gaua han pasatuko zuela eta taxistari ahaztu niri esatea! Hura herioa! Sekulako besarkada eman genion elkarri eta nirekin etorri zen etxera.

Berandututakoan beti kezkatuta... Gainera, izandako arriskuak kontatzen zizkidan eta, orduan, okerrago. Behin erori egin ziren Rafael eta Andoni, motorrean, Zestean, aldapan behera zihoazela. "Rafa, behera gatxik", esan omen zion, eta horrek: "Zer egingo diagu, bada!". Minik ez zuten hartu. Rafaelek Andoniren oroitzapena mantentzen laguntzen dit. Garai hartan nik hari amorrua nion eta hark niri beldurra. Gero gauzak asko aldatu ziren. Gaietik ezin kendu! Ez, serio, harreman oso ona daukagu. Andonik ikusiko balu zer esango ote zukeen!

Bilbora joaten baginen, lehenengo lana, museora. Kanpora joaten ginen bakoitzean, lehenengo lana, museora. Eskerrak niri ere



Maria Jesus Arregi eta Andoni Albizuri,
senar-emazteak

gustatzen zitzaizkidan. Kotxea eraman behar bazen, nik eraman behar: Andonik notak hartu behar inguru guztietara begira, gero interesgarria iruditzen zitzaion lekuren batera joateko. Donostiara bideko autopistako haitz haiek denak ere begiratzen zituen. Gustura geratu eta han begira hasiko litzateke hura! Santanderrera Vespan joan ginen behin. Hura berak eramaten zuen, eta, horregatik, Andonik nahiago zuen kotxean. Santander inguruan liburua betetzeko lain apunte! "Marije, poliki, poliki!". Dena apuntatzen.

Barandiaranengana joaten ginen bisitan eta hark esan zion: astebete egin zure maitearekin eta bestean joan mendira... baina kaka zaharra! Hark ezin zuen mendia utzi! Ezkontzera gindoazela, zeini esango ote genion ezkontzeko, eta On Joxe Mieli, zeini bestela! Bazkaltzen ere gurekin izan zen. Gerora ere askotan joan ginen bisitan, oso gaixo zegoenean. Harreman pertsonal handia izan genuen. Orain museo gisa dago haren etxea. Hilez geroztik ez gara gehiago joan. Rafari esan beharko diot bisitan hara joateko. Andoniren argazkiak eta han zeuden. Biziko balitz bezala daukat presente.



“Ekain sekulako bonbazoa izan zen, eta aurkikuntza haren ondoren, gazte asko hasi zen, baina gehienek laga egin zuten”.

Rafael Rezabal

Katxo bere anaiaren bitartez ezagutu nuen, hura koadrilakoa nuelako. Antxieta taldeak hainbat fazeta zeuzkan eta herriko kultur mailan buru-belarri sartuta zebilen hura. Nahiko berandu sartu nintzen bertan; kare haitzetan zeuden markak begiratzen ibiltzen nintzen, eta Andonik hura jakin eta bere taldera joateko esan zidan. Hura izan zen ni ulertu ninduen bakarra. Mendian ibiltzen ginen, Luziano Ansoalde, Joxe Aranburu Txata, Joakin Elorza eta beste batzuk, eta igandea bakarrik izaten genuen. Denbora askoko lana zen, pazientzia handikoa, eta ezin genuen urrunegira joan: Errezil aldean, Granada Errekan eta Lasturren ibiltzen ginen. Koadrilakoek, berriz, beti txikiteora joan nahi zuten eta kaskatuta nengoela esaten zidaten. Beharbada arrazoi zuten!

Non bilatu ere bagenekien. Kareharria urak erraz zulatzen du eta haitzuloak sortzen ditu. Bestalde, beti ibai ondoan bizi ohi ziren, urak materialak ekartzen dituelako. Beste pista esanguratsua izaten da lurra kea botatzen badu: haitzuloa dagoen seinale, beti horrela ez bada ere. Animaliak ere eguraldi txarrarekin zuloetara joaten dira, eta bidean uzten duten simaurra pista ona da. Neska gazteei begiratu beharrean, gu, simaurrari begira!

Bai, beti inguruetara begira ibiltzen ginen, aztarnak non egon zintezkeen begira.

Apuntatu egiten genituen, eta gero konprobatzera joaten ginen. Horrela, Errezilen gauzatxo bat aurkitu genuen, Granada Errekan ere bai... baina gero Ekaingoa iritsi zen: Sastarrainen hango baserritarrari galdetu genion, ea ezagutzen al zuen han zulorik, sasi artean, urkien inguruan-eta. Izan ere, inguruak aproposa zirudien eta horregatik joan gintzaizkion galdezka. Eta hark baietz, untxiak zirrikitu horietako batetik ezkututzen zirela. Baserritarrek horrelakoen berri izaten dute. Topatu genuen zulo txoa eta han hasi ginen handitzen; hura ezkerretik eta ni eskubitik, harriak kentzen. Aire korronea sumatu genuen. “Andoni! Hemen zuloa zio!” esan nion. “Zer egingo diagu?”, galdetu nion, eta hark, erantzun: “Aurrera! Zer egingo diagu, ba!”. Orduan apenas materialik ere izaten genuen... baina aurrera egin genuen. Ni txikia izan, eta zuloan sartu eta aurrera egin nuen, arrastaka, bidea irekitzen. Lurra jo nuenean, estalagmitak ikusi nituen, eta uraren soinua, bai ederra! Dagoeneko barruan, margotuta egongo ote zen pentsatzen hasi ginen, eta bat alde batetik eta bestea bestetik abiatu ginen. Halako batean, ezkerrean begiratu nuen eta zaldi pila hura ikusi nuen. Oihu ikaragarria bota nion eta Andonik pentsatu omen zuen: “Han, erori duk!”. Ez, ez nintzen erori, baina ia-ia, atzeraka. Hura poza! Gero zaldi gehiago ikusi genituen; bisonteak, hartzak, eta zaldi gehiago. Emozioak gain hartuta, ezin izan genuen barruan gehiago egon. “Hi, hau ez zikok

inori esan behar”, komentatu genion elkarri. Azpeitira bueltan, txikiteoan genbiltzala elkarri begiratzen genion eta ezin ezer esan! Zuzena eta zorrotza zen Andoni, eta hor egon ginen hitzari ezin eutsita...

Azkoitian ere bazen talde bat, eta oraindik ere bada, Munibe; pikea geneukan, sanao eh! Ojo! Arzalluz, Sasieta, Julen Plasta, Mendizabal eta Garate ere inguruan izaten genituen. Halako batean, egun batzuk geroago, Lasturren goitik behera gindoazela, haiekin topo egin genuen. “Mekaguen! Azpeitiarrek aurkitu behar!”, esan ziguten. Baina haiek ere pozik zeuden, behinik behin hemengoak, ingurukoak izan ginelako aurkitu genuenak. Behin lokalera ekarri genituen eta gero afaltzera joan ginen. Haiek eta gu baino ez ginen langintza horietan duela 50 urte. Eta orain ere bai!

Ekain sekulako bonbazoa izan zen, eta, aurkikuntza haren ondoren, gazte asko hasi ziren, baina gehienak laga egin zuten. Orain taldean ditugun gehienak orduan hasi ziren, baina beste eskola bat dute. Guk kata txiki-txikiak egiten genituen, eta ez ziguten gehiago egiten uzten. Hauek bai, metroko katak. Hasierako garai haietan ez ziren gutaz fidatzen. Munibekoek gu baino kontsiderazio hobea zuten, baina pixkanaka-pixkanaka Jesus Altunaren konfiantza bereganatu

genuen, bai eta Barandiaranena ere. On Jose Mielekin harreman handia zuen Andonik. Hura fidatzen zen.

Askotan arriskuak ere pasatzen genituen; Lasturren behin, Guardia Zibilek altoa eman ziguten eta automobila irekitzeko esan ziguten: han genituen aitzurrak, jesukristoren kutxilo zaharrak... Garai zailak ziren haiek eta kezkatuta begiratu genion elkarri. Haiek zer ziren galdetu ziguten, eta guk arkeologo lanetan ibiltzen ginela... Zorionez sinetsi ziguten. Beste baten motorrean gindoazela geratu gintuzten. Euskaraz idatzitako paper batzuk nituen eta harroko jarri zen bat, haiek itzultzeko, modu txarrean. Nik ere harroko erantzun nion, eta eskerrak beste bat etorri zen. Orduan ere ez zen ezer pasatu...

Makina bat aldiz kabreatuta bueltatzen ginen, ez Guardia Zibilengatik, nahi genuena topatzen ez genuelako; eta orduan beste zulo batzuk esploratzen genituen: Endoian, Aizarnazabalen... hamaiketako ederrak egiten genituen. Zulo haien berri ere bagenuen; denak ezagutzen genituen, naturalak eta ez hain naturalak! Begira, Granada Errekako baserrira joaten ginen, amona batek han salda eta haragi egosia ematen zigun, ederra... ederra neska gazte bat ere bazen han! Gauzak ahazten zaizkigu, baina ez hamaiketako haiek, ez jauna!



Iñigo Olarte

Ez dut garbi oroitzen nolatan sartu nintzen hemen. Kultur arloan hasi ginen Imanol Eliasekin, eta mendian Lagun Onakekoekin. Eta Eliasen bitartez ezagutu nuen Andoni. Zapatu arratsalde batzuetan, hura bere Vespan, beste bi gizonezkorekin, Zarautz aldera jaoten ginen, Granada Errekara... eta interesa piztu zitzaidan; gustuko nuen zuloetan ibiltzea. Egia da ez genuela material esanguratsu asko jaso, baina tinko hartu genuen irtete kontu hori, eta asteburu oro irteten hasi ginen. Nafarroara ere joan ginen zubi baten, Bi Haizpetara, Ultzaman. Giza hezur batzuk aurkitu genituen; izan ere, Andonik bazekien zerbait egon zitekeela. Herrietan galdetzen genuen eta bide zaharretik gindoazela, horrela, galdezka, iritsi ginen; Brontze Garaiko aztarnak aurkitu genituen.

Nire koadrilakoak animatu zitzaizkigun, eta Granada Errekara, Erraillara, Jesus Altunari-eta laguntzera joaten ginen, baina urtean zehar beste zulo txo batera joaten jardun genuen, eta horrela urtebete pasa aritu ginen. Karnetik ez eta oinez abiatzen ginen larunbat goizean, zulatzen jardun, bertako baserrikoekin afaldu eta, ondoren, kartetan jokatzen genuen. Neska koadrila ere joaten zen. Zulatzen ez ziren egoten, baina koadrilakoek asteburu-pasa egiten genuen.

“Eskolarik ez genuen, baina gauza asko ikasten ari ginen. Gure eskola indusketak izan dira, esperientzia hartzen joan heinean”.

Gero karnetak eta kotxeak etorri ziren, nire egungo emaztearena bat. Baita Jabierren 850 hura ere. Ez genuen ezer topatzen, baina oso ondo pasatzen genuen. Granada Erreka eta Altzolarats bailaretara joaten ginen. Kanean parranda egin beharrean, han ibiltzen ginen. Arrieta, Andrex... taldean sartu aurretik han ibiltzen ziren, hezurak-eta garbitzen... Nik hemezortziren bat urte izango nituen eta haiek gazteago direnez... Egin zezaketen sarraskiarekin haserretu beharrean, Andonik esan zien: “Nahi al duzue gurekin etorri?”. Eta gaur arte. Etorri dira pinturak, grabatuak. Josebari tokatu zitzaion Ezkuztako. Sekulako subidoia!

Lasturren ere antzekoa zen: ogitartekoarekin joaten ginen, eta inguru guztietako baserriarrek ezagutzen gintuzten. Altunak-eta gure laguntza jasotzen zuten. Amaldan ere gurekin kontatu zuen. Nola ez ba! Azpiegitura guztia muntatu genion: plomadak, argindarra... Eskolarik ez genuen, baina gauza asko ikasten ari ginen. Gure eskola indusketak izan dira, esperientzia hartzen joan heinean. Amaldan dezente sufritu nuen, bertigoak dauzkate-eta. Haitzulo barruan ez dit kezkarik ematen, baina paretak bai! Ondoa Amalda III dago eta 20 metroko paretan, goian dago kokatuta. Niretzat sekulako zirrara zen. Han gora joan

ginen eta normalean baino lizentzia pixka bat gehiago eman zigutelako, eta guk zegokiguna baino pixka bat hartu genuelako, Muster aldiko suharriak aurkitu genituen. Ikaragarria.

Erlaitzen, Andoni zena, nire andregaiia eta ni joan ginen eta azagaia bat aurkitu genuen; hura izan zen nire aurkikuntza berezia. Lurra erorita, hondoratuta zegoen zati batean; hezur bat ikusi nuen han eta marrazkiak zituela konturatu nintzen: muturra puskatuta zuen eta lurraren hausturan, erori gabeko lur zatian, punta zuri bat ageri zen. Eta horrelaxe zen, pieza osoa ateratzea lortu genuen: adar bat erditik ebakita, eta arrain batzuk marraztuta. Orain hor aurkitu dituzte taldekideek grabatuak! Sasi arteko urtetako lan handia izan da, lau zeramika aurkitzeko, eta kolpetik hau... baina ez da kasualitatea. Lehen aurkitutako kobak sistematikoki berraztertzeko lanaren barruan kokatzen dira.

Jendeak galdetzen digu: "Hor zergatik jardun duzue bila? Zergatik ez han?", aurreko igande batean, urrutira joan gabe. Eta erantzuna da esperientzia batu duzulako. Garai batean pentsatzen genuen dena kobak zirela, baina kobetan ez zirela bizi konturatu ginen. Kanpoan bizi ziren. Baita Groenlandian ere. Eta Irikaitz guretzat ere iraultza izan zen. Zortea dela pentsa daiteke, baina ez. Zestoan koba baten ari ginen, eta Irakaitzeko

zabalean zulo bat ikusi genuen; kolektore bat egiten ari ziren. "Begiratu egingo diagu", esan genion elkarri, eta harria eta lurra soilik ikusi beharrean, arrastoak ikusi genituen: ibai ertzean, leku laua... Loiolan ere gauza mordoxka aurkitu ditugu. Egin ditugun zulo guztietan aztarnak azaldu dira; lurrera begira joaten garelako. Lazkanok, Loiolan paseoan zihoala, Zubeldianeko etxe ondoan seinale bat ipintzerazihoazela, suharriak ikusizuen. "Hemen gehiago egongo dituk", pentsatu genuen. Garai hartako jendea ere ia-ia oraingo herrian bizi zen. Tamalez, etxeak egin dituzte: betikoa. Aurrerapena ala kultura? Ba, aurrerapena aukeratzen da, argi eta garbi. Zestoan ere Irikaitzekoarekin arazoa izan genuen: futbolzelaia egitekoak ziren... baina zulatu genuen leku guztietan beldurtzeko adinako material pila aurkitu genuen. Harrigarria, baina futbolzelaia han ez egitea lortu zen. Horrelakoetan, normalean, urgentziatzeko zuloak egiten uzten dizute, baina gero itxi egiten dituzte.

Ilusioa pizteko moduko zerbait aterako dugulakoan gaude beti. Igande goizeko zortzietan Astotegira joaten bagara zerbaitengatik da. Andonirekin idazkari lanak egiten nituen, eta giro ederra genuen. Beti egon da ambiente polita. Azken batean, gehienak aspalditik ezagutzen gara, finkoak gara taldean. Oso diferenteak gara gure xeletasunean, baina oso ondo konpontzen gara.



Jose Inazio Arrieta

Kuadrilako lagunak Ekain inguruko kobetara joaten hasi ginen 14 urterekin. Kanpina hartu eta Urola trenean joaten ginen aste bukaera pasatzera Sastarrain aldera. Ekain inguruko kobazuloetan "Ursus Spelaeus" antzinako hartzaren hezurak bilatzen genituen. Andoni Albizuri "Katxo" k hezurak errekan garbitzen ikusten gintuen eta egun batean arrimatu zitzaigun. Gu adoleszente lotsagabe xamarak ginen, baina berak ez zigun errietary egin eta takto handiarekin bereganatu gintuen. Egia esateko, oso ondo konpontzen nintzen berarekin. Anekdota bezala lehenengo aurkikuntzen artean, Beondegi-II Albisturren giza kaskezurrak aurkitu genituen eta bizikletan Andoniren ganbarara bidean nindoala Azpeitiko plaza txikian patinatu eta erori egin nintzen eta han joan ginen lurrean zilipurdika bizikleta, neu eta kaskezurrak poltsatik irten eta bueltaka. Andonik ez zidan errietary egin eta berehala pegatu genituen apurtutako zatiak.

Oso langile metikuloso zen eta ikaragarritzko afizioa zuen. Kriston kolpea hartu nuen hil zenean, soldadutzan nengoen eta 19 urte nituen.

Lehenengo aurkikuntzak ugariak izan ziren, baina gutxi landutakoak. Garai hartako gure Aranzadiko arduradunak gauza txikiena bilatutakoan "geldi" esaten ziguten. Kuadrila handia ginen, garai frenetiko zen, baina beti beldurrez zulatzeke. Ni oso kritikoa nintzen gai honekin eta lana ondo egitea ezinbestekoa ikusten nuen, baina lotsagabetasun gehiagorekin. Andoni eta Rafael beldurtu egiten ziren, baina gu oso gazteak ginen eta denarekin ausartzen ginen. Lanean ari ginela gero eta gehiago ikasten genuen. 1980ko hamarkada hasieran Zestoako Amaldako kobazuloan Jesus Altunaren zuzendaritzapean egindako indusketa ofizialean parte hartu genuen eta garai haietan erabiltzen ziren metodologiak ikasi genituen.

Garai haietan Jose Miguel Barandiaranek asko animatzen gintuen lanean jarraitzeke eta Ataungo bere etxera bisitatzera joaten ginen bakoitzean irribarez "Tope Azpeitirrak!" esaten zigun, horrek poztu eta asko animatzen gintuen.

Denbora aurrera, guk lanean jarraitu genuen, ikasitakoa praktikan ipiniz. Zestoako Amalda

“Andonik hezurak lapurtzen harrapatu gintuen Ekain inguruan. Gu adolezente lotsagabe xamarrak ginen, baina berak ez zigun errietarik egiten. Egia esateko, oso ondo konpontzen nintzen berarekin.”

III kobazuloan kata handiagoak egiten hasi ginen. Lana oso sistematikoki egiten genuen, aurkikuntza gutxiagorekin, baina gehiago landutakoak. Niri, lan teknikoa gustatzen zitzaidan eta metodologia aplikatzen saiatzen nintzen arkeologi miaketa hauetan.

Irikaitzen ikuspuntu aldaketa bat eduki genuen, leku guztietan begiratu behar zela konturatu ginen. Ez kobazuloetan bakarrik baizik aire librean ere. Horrela, Loiola, Ikulluteko Gaiñe edo Asurtzu bezalako aztarnategi garrantzitsuak bilatu ditugu ikuspuntu berri honen ondorioz.

Ezkuztan gizakiak hain ongi landutako barilla mundialak aurkitu ditugu orain dela gutxi. Aztarnategi harrigarria da, oso aberatsa, Azpeitiko toki magikoa.

Zestoako Danbolinzuloko Labar Pinturen aurkikuntza oso xelebrea izan zen. Taldeko denak eztabaidan badirela eta ez direla. Ekain bilatu eta 45 urte pasatu ondoren azaldu zitzaigun Labar Artea eta botazioz erabaki behar izan genuen beraien autentizitatea. Badaezpada bai esaten zutenak, dudakoak eta ez esaten zutenak denok ospatu genuen Zestoako taberna batean.

Zestoako Erlaitzeko Labar Grabatuen aurkikuntza ikaragarria izan zen! Haiek bai zirela benetakoak! Dudarik gabe! Kriston poza eta tripako korapiloa. Korapiloa askatzeko berriro Zestoako taberna batera ospatzera.

Zestoarrak moskeatuta beraien herritik irten gabe genbiltzalako. “Bazabiltzate orain ere zerbait aurkituta” esaten ziguten kalean.

Gure lanaren premia dira azkeneko aurkikuntzak, baina ez gara ahaztu behar garrantzitsuena metodikoak eta konstanteak izatea dela. Lehenago Ekain, geroago Ezkuzta, Danbolinzulo eta Erlaitz bezalakoak oso zailak dira aurkitzea; tartean bilatu ditugun hainbat eta hainbat aztarnategi lanaren konstantzirik gabe ez dago egiterik.

Orain taldekide berriak ditugu, odol berria! Iñigo, Igone eta Ion, kriston freskura eman diote taldeari eta seguru nago gehiago ere etorriko direla, lanean jarraituz gero premioak ere egongo dira lehenago edo geroago.

Gauza bat argi daukat: historiaurrea eta Urola bailarako ondareak herritarrenak izan behar direla eta horretarako dibulgazioa behar da. Dibulgazioak administrazioaren ardura eta konpromisoa izan behar du. “Hezurren Egia” proiektuarekin lehen pausoa eman dugu eta Urola bailaran herritarren artean garrantzia eman zaio egiten dugun lanari. Lehen gizakien aztarnategietan aberastasuna lepo dago, baina bertako herritarrei iritsi behar zaie informazioa modu egoki, erraz eta erakargarri batean. Lehenen bilatu egin behar dira, gero ikertu eta babestu, eta bukatzeko, ezagutarazi, bai oraingoei, baita etorriko diren belaunaldiei ere. Daukagunarekin denok gozaten ikasi behar dugu.



Andrex Maiz

Gazte talde bat hasi ginen: Patxi Uranga, Luengo, Aitor Aranguren, Arrieta... Zestoara joaten ginen kanpinean. Urola trenean joaten ginen eta gaua han pasatzen genuen, amuarrainak harrapatzen. Sastarrainen koban sartzen ginen, saltsara, geuk egindako eskalekin. 16 urte inguru izango genituen. Sakeatzaileak ginen. Arriskitsuak. Hezur batzuk atera genituen eta Katxorekin egin genuen topo. Hark ea haiekin hasi nahi al genuen galdetu zigun. Bronka bota beharrean. Eta arrazoi guztia izango luke. Baina ez. Bere ganbarara eraman eta hautsitako hezurak pegatzen eta horrelako gauzak egiten ipini gintuen. Esaterako, Ekainen bide erdian dagoen estalagmita konpontzen, denak han laguntzen baitziren barrurakoan... Granada Errekan, Errailan-eta, indusketak egiten, azaleko enterramenduak aurkitzen genituen, metro erdiko katak egiten genituen-eta. Garai ederrak ziren haiek, Amaldan-eta, Altunarekin, Pako Etxeberriarekin... orain mediku-forentse ezaguna dena.

Andregaiare ere topatu nuen, baina kanpoko, eta Donostia aldera joan nintzen lanera eta Hernanira bizitzera. Eta hark esaten zidan ea gutxienez gasolina ordainduko ote zidaten. Nik baietz esaten nion, noizbait ordainduko zidatela. Hernani aldean ere ibiltzen naiz. Seme-alabak ditut, baina dagoeneko hasita

“Gure herrialdean egin diren aurkikuntzen portzentaia handia gureak dira, baina denak eman ditugu”.

daude eta ez dut hainbesteko arazorik familiarekin uztartzeko. Izan ere, semea ere hor daukat, egokia da, eta emaztea ere ibilia da, Astasoro izeneko zulo baten. Orain topatzen ere lanak izango genituen!

Umeak hazi artean apenas ibili nintzen. Berrito joaten hasi nintzenean, Granada Errekatik Aizarnazabalera, goitik behera egiten genuen ibilbidea. Aztarnategi ugari daude bailara horretan. Ez alferrik, Azeria deitzen zidaten. Behin, mokadu bat egiten geratu ginen, aterpe batean, eta kideek bota zidaten: “Hi, ez ezak ezer topatu orain eh!” eta nik, raka-raka, eta halako batean, “Mekaguen! Orain ere topatu dik honek!”, entzun nuen nire ondotik.

Irikaitzekoa da beste adibidea. Haitzulotik ikusten genuen kanala ireki zutela, eta han behera joan behar genuela argi izan nuen: mugitutako lurretan kaxa bat material bete genuen; hamar kata egin genituen Lili jauregira bitartean, eta guztietan agertu ziren aztarnak. Zestoan gaizki ikusiak izan ginen garai hartan, futbol zaleen artean behintzat, baina konturatu ziren zein garrantzitsu den: Ekain berri eta abarrekin herriari ere mesede egiten zaiola.

Nire anaia Jabier da begi-onena orain, berak ikusi ditu bai Danbolinzulo, bai

Erlaitzekoak; ni ere 60 kilo eskasekin aurreraka erraz sartzen nintzen, hau bezala orain; hori bai, atzeraka irtetea zailagoa da: hamar metro egiteko ordu erdi behar da. Anaia orduan Annapurnan-eta ibiltzen zen eta eskaladako zerbait genuenean deitzen genion hari, Joxe Takolori, Pako San Sebastiani...

Guk dirurik ez genuen, eta horregatik funtzionatzen genuen ondo. Amaldan ibili ziren ikasle onenak profesionalak izaten bukatu dute lan onetan: Pako Etxeberria, Alvaro Arrizabalaga, Angel Armendáriz, Xabier Peñalver eta abar... Baina guk gure lanetan jarraitu behar izan dugu. Bizi egin behar da eta horretarako dirua behar dugu. Guk subentzioak gasolinatarako eskatzen genituen, eta ditugu. Ez katak egiteko. Eta arkeologo ofizialak kexatu egiten ziren, "de flor en flor" ibiltzen ginela, toki onenetan ibiltzen ginelako. Urteek denerako ematen dute, jendea ezagutu behar duzu, zein diren bakoitzaren interesak... Gure herrialdean egin diren aurkikuntzen porzentaia handia gureak dira, baina denak eman ditugu. Horiek lehen aurrekontua ziurtatzen dute eta gero egiten dute lan. Guk alderantziz. Amateur mailan, baina lan profesionala. Aztarnategiaren dokumentazio guztia, planoak, mapak, lekuko koordinadak, materialen siglatze lana,

asteartetan egiten da lokalean, lan luzea eta nekeza. Nik orain horrelako gutxi egiten dut, kanpoan bizi naizelako. Aitzakia ederra!

Azken boladan ere berriro saltsan nabil.

"Orain non zabilzate?", galdera. "Xoxote puntan", erantzuna. "Mekaguen la letxe!", oihartzuna. Asteartetan joaten ez naizelako, horrelako sustoak ematen dizkidate telefonoz deitutakoan. Donostiatik zuzenean joan, eta Aittolan aparkatzen dut. Egia esan behar bada, ikusten zen zerbait gehiago egon behar zuela; hori bai, guk orduan pentsatzen genuen beste Ekain bat aurkituko genuela, baina noski, kaskarragoak badira ere, egon behar dute gehiago. Zestoa inguruan denbora-epe tarteak betetzen ari dira, jarraipena dago, sekuentzia kronologikoa betetzen da Sastarrain bailarako haitzuloetako aurkikuntzetan: Danbolinzulo, Erlaitz, Ekain... Frantzia eta Asturiasen, Kantabrian askoz gehiago aurkitu dituzte. Lehen bi puntu ikusiz gero, hura zerbait izango zela pentsatuz gero, "hik tontue ematek!", esaten genion elkarri; orain, berriz, dena aztertzen dugu, badaezpada ere. Orain beste begi batzuekin begiratzen hasi gara. Landarbaso (Aitzbitarte), Altxerri... ere baditugu, baina seguru hemen ere gehiago daudela. Hernani aldean beste talde bat egongo balitz dudarik ez daukat aurkituko zirela!



Jabier Lazkano

Ni dantzaria nintzen eta Andoni, Katxo, txistularia. Gazte ezkondu nintzen eta dantza utzi eta umeak etorri ziren... Bi ume nituela, ez, hirugarrena ere jaiota, **behin Katxorekin topo egin nuen eta haitzuloetara joaten hasi beharko nuela esan zidan.**

Esan eta egin. Andoniren ganbaran juntatzen ginen; lehenengo irteera Itziar aldera egin genuen, Aitzgaiztora, eta gizaki baten hezurak aurkitu genituen. Ez zegoen gaizki aurrenekoa izateko! Planoak eta egiten genituen... Besteak nire aldean gazteak ziren: Arrieta, esaterako, ezagutzen nuen dantzak erakusten ere jardun nuelako. Gazteagoak... eta ausartagoak ziren: Bidaniko koba batek pasa-leku madarikatu bat zuen; hain zen estua, arnasa botata pasatu behar zela pasatu ahal izateko. Eta kateatuta geratu nintzen. Beldurtu eta atzera egin nuen; familia, alabak etorri zitzaizkidan gogora, eta sarreran geratzea erabaki nuen. "Hi, Jabier! Gizakien kaska-hezurak zaudek hemen!", bota zidaten. Bi minuturen buruan barruan nengoen: orduan denak ahaztu nituen eta ez zegoen ez arnasarik, ez arriskurik.

Baina **gure ametsa beti pinturak topatzea izan da. Eta ez da erraza aurkitzea. Berrogei urtetan ezer ez genuen aurkitu, eta hiru astetan bi!** Hemen oraindik gehiago aurkituko genituzke, baina jende gutxi gabiltza. Igande

"Lehenengo irteera Itziar aldera egin genuen, Aitzgaiztora, eta gizaki baten hezurak aurkitu genituen. Ez zegoen gaizki aurrenekoa izateko!"

goizetan baino ez mugitzeak asko mugatzen du aukera. Gipuzkoako karta arkeologikoa begiratzea besterik ez dago: Munibekoenak eta gureak dira hemengo aurkikuntzen %60. Egon, egongo dira. Seguru. Batzuk itxita egongo dira, Altxerri bezala; han suertea egon zen eta zuloa ireki zen, baina urteetan pinturak ikusi gabe, bertan ibili arren: pintura gainean izenak eta idatzita zeuden. Baita lauburu bat marraztuta ere! Zalantzak ere egon ziren lauburu bisontearen adinekoa ote zen...

Hezur-aurkikuntza gehienak eneolito edo brontze garaikoak izaten dira, errazenak baitira, azalean daude-eta, baina paleolitiko garaikoak aurkitzea oso zaila da. Gutxi daude, ia inon ez. Gipuzkoan Lezetxiki (Arrasate) eta Erraila (Zestoa) bakarrik daude. Begira zer gertatu zen Urtiagan. Barandiaranek eta Aranzadik kaska-hezur bat aurkitu zuten, baina Joxe Mielek susmo bat zeukan: euriaren negarrarekin, urak lurra jan eta ez zegokion maila batera jaitsi zela. Justu orduan Gerra Zibila lehertu zen eta Bilbon utzi behar izan zuten. Duela gutxi datatu dute eta 4.000 urte dauzka. Arrazoi zuen!

Danbolinzulon kristoren saltsak izan genituen. Pinturak aipatzen ditugunean, beti Ekain edo Altamirakoak etortzen zaizkigu gogora, eta han, berriz, ez genuen ezer

ikusten, harkaitzetan askotan agertzen dira-eta orban gorriak. Horrela, Danbolinzulo ondoan aurkitutako beste zulo txiki bat aztertzen ari ginela, Mahatsa, Jabier Maiz koba nagusian sartu zen. Han etorri zen, lasai-lasai: "Hi, uste diat pinturak aurkitu ditudala". Sartu ginen eta eztabaidan hasi ginen. "Hau duk marka! Nik uste nian sekulako poza izango nuela eta ez diat horrelakorik sentitzen!", esan zuen Arrietak. Jabierrek txanpaina nahi zuen, bera ziur zegoen-eta, eta, orduan, denok edan genuen, badaezpada! Argazkiak bidali genizkion arkeologo eta margoetan aditua den Marcos Garciari, eta hark esan zigun, zalantzarik gabe, pinturak zirela. Eta Ekaingoak baino zaharragoak!

Hori ikusita, errepasso bat ematen ari gara besteei, ezagutzen ditugunei. Eta hantxe ondoan, Erlaitzen, Maizek eta Arizagak, arinenek, aurkitu zituzten grabatuak pareta arte batean gora eskalatuta. Eta, klaro, orduan ere benjamin batzuk eskatu eta edan genituen Zestoan. Arrakastak arrakasta, neskekin ditugu arazoak. Bat hasi zen eta segituan utzi zuen. Duela gutxi beste bat, baina berehala utzi dio. Zaharrak ikusten gaituzte-edo... goizeko zortzietan Astotegira joan behar delako... nork daki.

Herrian bertan ere jardun genuen, aire librean, baina arazoa da lurak dena jaten duela, eta ezinezkoa dela hezurak aurkitzea;

ikatzak, zeramikak bai, baina kasu gehiegirik ez zaie egiten. Loiola bidean Burdin Aroko errota-harriak aurkitu genituen, baina orain etxeak egin dizkigute! Muno Handiko aurkikuntzekin zerikusi handia eduki behar dute. Hara, nik garbi daukat haien ondorengoak garela, eta hemen euskaraz hitz egiten badugu, esaterako, erromatarrek interesik ez zutelako da, pobreak ginelako. Arditurri edo itsasaldea ustiatu zuten, baina gure inguruneak ez zituen haiek erakartzen. Zestoako Ertxinen erromatarren terra sigilata, zeramika aurkitu genuen; kristalak Izarraitzen. Baina aurkitzen diren gauzak trukearen ondorio dira, hara eta hona ibiltzen ziren-eta.

Orain Erlon ari gara, aire librean, eguraldia, eta satorra, lagun. Izan ere, non hasi Erlon? Baserritarrek ez dituzte satorrak maite, baina guri lana aurreratzen digute. Lurra iraultzen dute eta suharriak, zeramika zatiak azalarazten dituzte. Hartu erremintak, Aldundiari baimena eskatu, Marijose Iriarte eta Alvaro Arrizabalagari; nonbaiten zerbait aurkitzen badugu, zundaketa egiten dugu eta horiek aztertzen dute. Merezi badu, indusketa handiagoa egiten da, jende askorekin. Hori gertatu zen Ezkuztan. Eneolitoko edo Brontzeko kaska-hezur bat aurkituz gero, Alvaro edota Pako Etxeberria etorriko dira, baina besterik gabe, ilusio berezirik gabe. Neandertal bat aurkituz gero, ziztu bizian etorriko lirateke!



Jabier Maiz

Beti bezala elkartu ginen Astotegian.

Jabier izan zen agertzen lehena, beti bezala. Geroxeago etorri ziren Arrieta eta Iñigo, beti bezala. Urteak ziren igandero elkartzen ginela indusketak egiteko; neu nintzen iritsi berriena, eta hogeitau urte baneramatzan igandero ekinaldietara azaltzen. Joseba izorratuta zegoen osasun kontuengatik. Ezin etorri. Horrek ere urte pila ederra eskaini dio taldeari! Arrietak Zestoako bailaratxo batean haitzulo koxkor bat aurkitu zuela zioen, eta ahaleginak egin behar genituela bertara sartzeko; aire korrante handia zegoela eta koba baten atarian egon gintezkeela. Lanak eman zizkigun zuloa aurkitzeak. Arrietak beti ere "hementxe duk, hementxe duk" zioen, baina zuloa ez zen inondik inora agertzen. Halako batean agertu zen arte. "Ikusten nola nuen arrazoi?", esan zuenarekin batera lehertu ginen besteak: "mendi guztia pasatu diagu, eta han behean ere horixe esaten ari hintzean; hementxe duk, hementxe duk! GPS kaskarra duk hirea!".

Haitz-horma zurixkan zulo beltza, zulo koskorra, zulo txikia. "Sartu egin behar diagu, nola edo hala", zioten Jabierrek eta Iñigok.

"Hemen sartzerik ez ziok!", esan nien nik. "Beno, beno, hor sartuko ez haiz ba! Txikiagotan sartzeko ikusi haut", erantzun zidan Arrik, nik hori ez zela egia jakin arren. "Badakik gertu zer koba dagoen. Saiatu hadi behintzat", haiek, teman. Ez zegoen beste erremediorik; hori entzunda, ekin egin beharko nion ahaleginari. Gerri parean irekitzen zen zuloa,

Arrietak Zestoako bailaratxo batean haitzulo koxkor bat aurkitu zuela zioen.

"Sartu egin behar diagu, nola edo hala".

eta laguntza behar izan nuen hankak barrura sartzeko: "Hankak ozta-ozta sartzeko dizkiat-eta!", egin nien oihu. Baina ez zegoen atzera biderik; zulora moldatzen joan nintzen; gorputz guztian sentitzen nuen; izterrak estutzen zizkidan; bularra eta bizkarra estutzen zizkidan. Barrenetik ahots batek "kanpora! Kanpora!", esaten zidan, eta kanporako bidea hartu nuen. "Zer arraio duk? Barruan hintzean-eta!". Berrito ekin nion, arnasa lasaitu, konfiantza berreskuratu eta barrura. Lasaiago sartuagatik, ez zen zuloa handitu, ordea, eta berrito han nintzen, estu-estu. Halako batean, hankak airean sentitu nituen. Beldurtu egin nintzen; atzean zer zegoen ezin nuen ikusi. Jarraitu egin nuen eta zuloa zabaldu egin zen. Burua mugitzeko tartea banuen eta, linterna lagun, barrura begiratu nuen. Halako izu-ikara batek mugitu zizkidan barruak. Neure muturren aurrean hamabost metroko zulo beltz bat zegoen. Eskala eman zidaten eta jaisten hasi nintzen, kostata, hasieran estu baitzegoen zabalduagatik, eta gero kolpera handitu zen; sala eder baten gainean nengoen. Pozarren jaitsi nintzen, zerbait azalduko zenaren itxaropenez, baina kaka-putza, ezer ez. Ez zuen jarraipenik. Han bukatzen zen dena. "Hemen ez zagok ezer!", egin nuen orro. "Eta airea, nondik?", erantzun zidaten. Egia. Airea. Ahaztuta nengoen. Eta han aurkitu nuen zulo estu hura niri putz egiten. Haren atzean koba ederren bat egongo zen, baina hura ez zen bertara iristeko bidea. Handik ezinezkoa zen. Nahigabez igo nintzen eskalan gora, gogo

txarrez igaro estutasuna eta ernegatuta iritsi kanpora. Lagunek, jakin-minez: "Zer zagok?", galdetu zidaten. Eta nik: "Zulo estu bat".

Horrelakoa da gure jarduna. Lan ederra egin genuen, bai, baina zorterik ez. Hala ere, leku bat gutxiago miatzeko. Hurrengoa, ordea, ez zen ezustekoa izan. Danbolinzulo. Kobazuloak berak deitu zidan, ziur nago horretaz. Taldean sartu nintzenetik, deigarria egin zitzaidan izena; jolastia, atsegina. Kondairak dio, antzinako txamanen antzera, Zestoako herria bere danbolinarekin sorgindu eta gero, koban lotaratzen zela. **"Danbolinzulo. Joan behar diat horra", pentsatzen nuen, baina unea ez zen iristen.** Urte luzez itxaron nuen. Eta, bat-batean, joan behar genuela. Baita eguna ipini ere. Hura zirrarra! Iritsi zen asteburu hura, baina nik Madrilerara joan behar. Zapuztuta geratu nintzen. Kostatu omen zitzaien aurkitzea. Urte luzez itxita egon ondoren, sasiz eta sastrakaz estalita omen zuen sarrera, baina lehengo lekuan behar zuela eta aurkitu zuten azkenean. Lagun berria topatu ziotela inguruan, eta bertara sartzeko moduren bat egitera joango ginela. Eta dei hura entzun nuen. Leku berriarekin nahikoa zuten taldekideek, eta bakarrik joan nintzen. Banuen gogoa. Apala zen sarrera; aldapa beheara makurtuta sartu nintzen. Atsegina egin zitzaidan harrera, epela ongietorria. Etxean bezala sentitu nintzen. Poliki-poliki, bazterrak miatzeari ekin nion. Hormek goroldio pixka bat zuten leku batzuetan, azala harrotuta bestetan. Ez zirudien pinturak aurkitzeko lekurik aproposena. Baina paretan zegoen multzo gorrixka bat deigarria egin zitzaidan. Denbora egin nuen hari begira, baina "ez duk ezer" esan neure buruari eta begirada orbanetik altxatzearekin bat ikusi nuen. "Buru bat zirudik", pentsatu nuen. Hurbildu eta "horrek adarra zirudik ba!" pentsatu nuen neure baitan. "Beno, hori adarra baduk, bizkarrak ere hor nonbait beharko

dik...", eta, nire harridurarako, han zegoen marratxoa. Oreina edo elur oreina, garbi nuen antzinako margolana zela. Lurrean eseri eta luzaroan begira egon nintzen. Lasai nengoen, oso lasai, neure harridurarako. Besterik ez nuen pentsatu: "aurkitu diagu". Urrunean, musika alaia gerturatzen sentitu nuen, txistu hotsa eta, erritmo bizian, danbolina, jo eta jo, gero eta ozenago: Danbolin, danbolin, danbolin...

Hurrengo asteko asteartean erabaki genuen. Erlaitzera joango gaituk. Izen horrekin hiru koba daude Zestoan, elkarrengandik gertu. Bat oso txikia da, bigarrena, aspaldiko laguna; bertan topatu zuen Antxieta taldeak landutako irudiak zituen Magdalen aroko animalia hezurra. Eta hirugarrena, eguneko helburua, bihurria, okerra, makurra, zaila, estua eta luzea: igande goiz baterako entretenimendu ederra! Goiza bertan joan zitzaigun eta ez genuen nahi genuen lekura iristerik lortu, eta etsipen puntu batekin bagindoazen. Bueltatu aurretik lagun zaharrari bisita egin genion, eta, behin barruan, txoko guztiak miatzen hasi ginen berriro. Eta azkenetako fitxajeak, Iñigo Arizagak, esan zidan: "Hi, hor goian dagoen txoko hori ikaragarri polita duk zerbait egiteko", eta hor abiatu ginen bi pareta tartean gora. Polita lekua. Polita eta atsegina, zoragarria. Baina pareta zuri-zuriak zituen. "Lehengo gizona ulertzen erraza ez duk behintzat", pentsatu nuen. "Halako leku ederra eta pinturarik ez". Hobeto begiratzea otu zitzaidan. Linterna hartu eta itzalak eginez begiratzen hasi nintzen, paretako koska denak ikusi nahian. Eta bat-batean irudi bat ikusi nuen niri begira. Zaplazteko bat bezalakoa izan zen. "Hi, hau ikusten al duk?", bota nion Iñigori. "Orein bat zirudik!". Adarrak gero ikusi nizkion. Uro bat zen. "Hemen grabatuak zaudek!" egin nuen oihu. "Benetan ari al haiz?", lagunek behetik. Denak igo arteko onik ez. Eta gero, festa. Pentsatu nuen: "Oraingoan bertsoak jarriko zizkigutek!".



Xabier Azkoitia

Arkeologi mundu hau 2008an hasi nintzen ukitzen Beizamako Belaku mendian. Burdin Aroko herrixka harresitu baten zantzuak zeuden, eta Aranzadi taldeak bere izaera ziurtatu asmoz burutu zuen indusketan parte hartzeko aukera izan nuen.

Burdinaren agerpenak sekulako bultzada ematen dio Brontze Aroan hasten den metalezko garapen teknologikoari eta, beronen agerpenarekin, milaka gizalditan iraun zuen harriaren nagusitasun teknologikoa erabat alboratzen da. Beronek suposatzen duen guztiarekin. Azkenean 12 hilabeteko eguzki egutegia ere ezartzen da mendebaldeko gizartearen ardatz eta gaur egun eratua dugun "kristora" eramaten gaitu.

Inguruan Munoandi, Buruntza, Basagain, Oria ibaiak suposatzen duen banaketa. Baskoiak, erromatarrak, barduliarrak. Toponimoak. Mito edo elezaharra (Errezilgo sarraskia, Hilaungo hil arteko defentsak). Murumendi, Intxur,

“Egun, ziur dakit orain dela 200.000 urte gizakiak Izarraitz mendia ezagutzen zuela”.

Belaku, Hilaun, Akutu, Bordon Baratzea eta Zelatun; antzinako bide zaharrak gaur egun ere zeharkatzen ditu denak.

Nire uste apalean, gure egungo izaeraren aitzindari zuzena den historiaurreko garaia da. Eta bertan dugu euskaldunok aurreneko idatzizko agerpena, erromatarren eskutik, hain zuzen ere.

Garai hartako aztarnei lotuta, Urbigain mendixkak erakartzen zidan arreta, eta, 2009an, Antxieta Taldea mendixka hori aztertzeotan zela jakinda, taldera hurbildu nintzen.

Antxieta Taldea sasoi hartan kobazuloak miatzeaz pixka bat asetuta zen, eta aire libreko indusketetan emaitzak lortzen ari zen. Hauek lanean ikusita, Burdin Aroaz gain, ikuspegi integralagoa aurkeztu zidaten.

Lurrazaleko belarrezko alfonbra kendu eta dagokion aztarnen bidez denbora zatiak

irakurtzen hasten zara. Azalez azal, 5-10 zentimetroko geruza duen lurra atera eta ikertu: kartutxoak, zigarrokinak, plastiko zatiak, kristalezko zatiak, burdin-zepa, eskoria berriak, zeramika garaikidea, Alfonso XII.aren garaiko txanponak, kaolinak (gure aitonek tabakoa erretzeko erabiltzen zituzten lurrezko pipak)... Ondoren, eta zorte pixka batekin, zeramika zaharra eta zepa zaharra; beheraka-beheraka, suharrizko lantresnak Behe Paleolitoraino jarraituz.

Iganderoko ateraldietan gure aurrekoek lurrian utzitako arrastoa ehizatzen dugu nolabait, denboraren joana eta gure aurrekoen iragana, garai ezberdinetako taupadetan aztertuz eta bata bestearekin sekuentzialki nola izan diren egiaztatuz.

Txikitan uste nuen herri guztiek Izarraitz bezalako mendi bat, Itzurun bezalako hondartza bat, Loiola bezalako pasealekua edo lautada bat zituztela inguruan, Urola

bezalako ibai batek (tren bat alboan zuela) zeharkatzen zituelarik. Herriko futbol-talde bat eta, nola ez, Antxieta bezalako ikerkuntza talde bat. Denbora igarota, laster ikusi nuen, Urola bailaratik kanpo, ez zituztela herri guztiek gauza berdina inguruan. Baina, egun, ziur dakit orain dela 200.000 urte gizakiak Izarraitz mendia ezagutzen zuela, eta Urola ibaia jarraituz Zumaiako hondartzak ere ezagutzen zituela. 60 urtetan izan zen Urola trena ez, noski. Ez orduko gazteek, ezta oraingoek ere.

Badakigu Egiptora joan eta piramideak ikusteko aukera izango dugula. Atapuercan giza arrasto zaharrak; Erromara joanda, zer esanik ez. Txinan harresi amaigabeak... Baina niretzat garrantzi berezia du bertan topa daitezkeen aztarna xeheak, gure aitona-amonen bidez sortuak eta eratuak. Hala eta guztiz ere, aurreratu dezaket, egun, **Erlo inguruan aurkitzen, usaintzen eta ikertzen ari gara ez dela maila xehekoa izango, eta zer esan asko emango duela datozen urteotan.**



Iñigo Arizaga

Nirea historia pixka bat arraroa da. **Ama azpeitiarra dudan arren, ni eibartarra naiz**, eta herriko Club Deportivon ibili nintzen urte askotan, 14 urterekin hasita, pentsa, orain 51 dauzkat... baina espeleologian, ez arkeologian. Hala ere, noizean behin hezur zaharrak aurkitzen genituen, eta, orduan, Aranzadira bidaltzen genituen. Nik Antxietako hauen gauzak entzunak neuzkan, antzeko inguruetan ibiltzen baikinen. 78-80 urte inguru haietan haiek eta gu bakarrik ibiltzen ginen inguru hauetan, eta leku horiek AJTA taldeak markatuta ikusten genituen, AJTA han eta AJTA hemen, baina harremanik ez genuen.

Duela urte batzuk, ordea, espoliazioa egon zen Ermittiako haitzuloan, Deban, eta Ertzainak gurekin harremanetan jarri ziren. (A toda letxe) Ziztu bizian joan nintzen hara, baina dena berdin xamar zegoela iruditu zitzaidan; merkatu beltzean zerbait, mugimenduren bat detektatuko zuten eta...Izan ere, espoliazioa beti egon da-eta... "Beste aztarnategi batekoak izango dituk", pentsatu nuen, eta Lasturren indusketa handi bat aurkitu nuen. Carlos Olaetxea Foru Aldundiko lurralde arkeologoari deitu nion, kata handi bat zegoela eta ez nekiela legala ala ilegalaz en; lanpetuta zegoela esan zidan eta Antxietakoekin harremanetan

"Argia aurrez aurre ipinita ez zen ezer ageri, baina angelu egokian argiztatuz gero, uro baten burua grabatuta! Eta hemen zaldia! Oreinak! Magia zirudien!"

jartzeko. Eta halaxe jarri nintzen haiekin harremanetan, duela urtebete.

Baina nola diren kontuak. Espeleologo eta arkeologoek aktibitatea leku berean egiten badugu ere, jarduna desberdina da: espeleologook, askotan, haitzuloetan ez dugu jarduten, mendian bila ibiltzen gara, zulotxo baten bila, handik zer jarraituko. **Duela 30en bat urte, horrela nenbilela, zulotxo bat aurkitu nuen, eta bertan zeramika zatitxo batzuk**; Aranzadikoekin jarri nintzen harremanetan, baina ez zioten aparteko garrantzirik eman, eta galtzontzillo-kaxa baten sartu nituen; harrezkero ohe azpian izan nituen, ahaztuta.

Horrela, Lasturko koba hori ikustera joan ginenean -azkenean Azkoitiko Munibe arkeologia-taldekoak izan omen ziren kata egin zutenak, eta dena ondo zegoen-, zeramika zatiekin akordatu nintzen eta Antxietakoek oso interesgarriak zirela esan zidaten. Hurrengo batean zuloa aurkitzera irteteko geratu ginen, induskatu gabe baitzegoen.

"Hemen inguruan huan, ba", esaten dion neure buruari, baina urte asko pasatuta zeuden, eta ingurua asko aldatzen da. Hala ere, kostata izan bazen ere, aurkitu nuen zuloa; mesfidati



Iñigo Arizaga eta
Igone Elejalde

begiratzen zidaten taldekoek, bai eta begirada esanguratsuak bota elkarri ere, oso arraroa baita horrelako leku baten zeramika aurkitzea; baina, bai, hazka egin eta 30 zentimetroko diametroko labetxoan zeramika zatiak azaldu ziren, Haitzuloetan alferrik galtzen dira askotan, jendea sartzen da, azkonarrek dena nahasten dute, baina koban ez zeudenez, apurtuta egon arren, zati handiak ziren eta ontzi guztiaren puzzlea osatzeko moduan egon gara. Ezkila-formako ontzia da, Burdin Arokoa izan daiteke, duela 2000 urtekoa, edo beharbada zaharragoa, Brontze Garaikoa, ez dakit erritualetarako edo zer demontretarako, baina han, Lasturko mendi-puntan, zulo txo baten aurkitzea... Txiripa handia, beno, bi: piezak etxean gordeta izatea, kasurik egin gabe, eta hainbeste urte ondoren lekua berriro topatzea.

Hurrengo sorpresa Danbolinzulo ikusi behar genuela erabaki genuenean etorri zen. Koba aurkitzeko kristorenak bota genituen: 70-80etan aurkitutakoa da, eta orduan GPS eta horrelakorik ez zegoen. Ingurua asko aldatu da eta landarez erabat itxita zegoen, baina azkenean aurkitu genuen. Eta pinturak aurkitzea kristorena izan zen. Nahiko ezabatuta zeuden, eta zalantzak genituen: pinturak ote dira? Bozketa eta dena egin genuen pinturak ziren ala ez erabakitzeko. Batzuk baiezkoan zeuden, Iñigok eta Jonek-eta pinturak zirela esaten zuten, eta, beste batzuk, kontserbadoreagoak, Jabier Lazkanok eta Arrietak-eta, zalantzak zituzten.

Berdinketa. Dena dela, xanpaina edatera joan ginen ospatzeko, bai eta zalantzak zituztenak ere, eta haiek izan ziren gehien edan zutenak!

Gero Erlaitzekoa etorri zen, segidan. Ni espeleologo lanak egiten nenbilen, eta sifoi batetik gora egin nuen, eskalatzen. Kainoi nahiko estua zen, baina balkoitxo moduko batera iritsi nintzen, arrano-kabia zirudien: alde guztietara sekulako jauziak zeuden eta lekua bera oso berezia zen; igotzen beldurra sentitu nuen, eta gero, gora iritsitakoan, sekulako bakea; gustura sentitu nintzen, babestuta. Ideia bat egiteko, Ribagorzako, Pirinioetako ermita erromanikoak ezagutzen badituzu, errazago uler daiteke: kristoren toki txarretan eginda daude eta eskalatzen igo behar da bertara, bai eta jaitsi ere. Ikaragarria nola egin zituzten leku horietan. Behera begiratzen duzu eta 100 metroko amildegiak daude! Ba sentipen bera da. Paretak burbuila moduko bat osatzen dute, kupulatxo bat, iglu baten barruan bezala. Pinturarik ez zegoen, eta horrelakoetan pintura bila ibiltzen zara. Jabier ere gora etorri zen, eta linternarekin zuzenean enfokatuta ez zen ezer berezirik ikusten, eta arraroa zen, pareta leun-leunak, leku aproposa zirudien, baina marrazkirik ez. Jabierrek, orduan, aldemenetik enfokatu zuen eta, kolpetik, marrak azaldu ziren. Zer zen hori? Argia aurrez aurre ipinita ez zen ezer ageri, baina angelu egokian argiztatuz gero, uro baten burua grabatuta! Eta hemen zaldia! Oreinak! Magia zirudien!



Ion Uranga

Hemen, Azpeitian Egien Hezurra hitzaldia eman eta hurrengo egunean sartu nintzen ni Antxieta taldean. Pinturak eta grabatuak aurkitu eta berehalaxe izan zen. Ikaragarri gustatu zitzaidan eta jakin-mina sortu zitzaidan. "Deituko al diet?", galdetzen nion neure buruari. Zirt edo zart, pentsatu nuen. Hartu telefonoa eta deitu egin nien. Eta harrezkero igandero irteten dut beraiekin. Hasieran pentsatzen nuen dagoeneko adin bateko jendea izanda... banuen erreparoa, arraroa samarra izango zela, baina ke ba, oso ondo hartu naute. Beste bat bezala tratatu naute. Gainera, sekulako bi aukera izan ditut hasiberria izateko.

Duela gutxi Iñigo Olartek esan zidan: "Zortea daukak. Erlaitzera gitxik, grabatuak ikustera. Baina ez pentsa, hau ez duk beti horrela". Izan ere, **urte pila bateko lanaren ondorio dira aurkikuntzak, baina justu ni taldean sartu aurretik izan dira, eta orain azterketa-lanetan gabilitza.** Han zaudela, beren lekuan jartzen ahalegintzen zara; diferentea da, ditugun argiekin-eta, baina lortzen duzu. Nik behintzat lortzen dut! Sekulako errespetua ematen dizu. Kasualitatea izan da, baina Danbolinzulo ere

"Eta ederrena da,
bukatutakoan, beti,
baina beti, kalamarrak
jatera joaten garela!
Hori bai zirrara!"

ikusi ahal izan dut. Denak tokatu zaizkit! Pinturak aztertzeraz joan ziren eta han joan nintzen beraiekin. Sartu eta nire kideek marrazki denak ikusten zituzten, eta nik, apenas bi. Grabatuekin ere antzera gertatu zitzaidan; Jabier Maiz Mahatsak seinalatu zizkidan, baina berak erakutsi zizkidalako, bestela ez nituen ikusiko. Izan ere, margoak, grabatuak egin zituztenak aldamenean izango zuten argi-zuzia, eta gaur egun ikusteko linterna ere aldamenetik ipini behar da, ikusi ahal izateko.

"Pintura zahar horiek kultura?", diote batzuk; horrelakoak entzun ditut, baina niri errespetu handia ematen didate. Zer pasatuko ote zitzaien gizaki haiei burutik. Eta nolatan pintatzen zuten hain ondo! Hara, niri benetan gustatuko litzaidakeena Ekain, benetakoa, ikustea litzateke. Ea bertara joaterik dudana...

Lagunek flipatu egiten dute paretetan hartzen atzaparkadak daudela esaten diedanean. "Bai???", esaten didate, eta beren harridura aurpegia ikustekoa da, baina gero ez dira animatzen. Uste dut horrek igande goizeko zortzietarako jaikitzearekin duela zerikusia. Zapatu gauean zintzo ibili behar

da, ondo esnatzeko. Parranda eginez gero, ezin da joan. Baina merezi du. Dударик gabe. Ikasi egiten duzu, gure historia da (beno, historiaurrea), kontatzen dizutena. Eta bazterrak ezagutzen dituzu; izan ere, ez nuen inguruko ezer ezagutzen; sekulako txokoak erakusten ari zaizkit. Inportanteena, hurrengo iganderako gogoz geratzen naizela! Beste batzuek, berriz, "hi kaskatuta hago!", esaten didate. Noski, parranda zale amorratuenek. Behin baino gehiagotan tokatu zaizkit ezagunak Astotegian, ni etxetik eta haiek etxera bidean. Beno, etxera edo... Neskalgunak ere esaten dit, parranda pixka bat egin beharko dugula noiz edo noiz, baina tira, onartzen du mementoz. Nik ere beste gauza batzuk utzi behar ditut... Oso ondo iruditzen zaio.

Igandea motz geratzen zait. Trasteak hartu, berriketan, aldatu eta abar... begiratu han, aztertu hura, eta, konturatzerako, bueltan etorri behar. Hezurren batzuk, pinturak, batik bat pinturak topatzea gustatuko litzaidake. Ikara sortzen zait duela ez dakit zenbat mila urte tipo batek pareta pintatzen zegoela pentsatuta. Testuinguruan sartzen naiz eta zirrara berezia sortzen zait. Eta ederrena da,

bukatutakoan, beti, baina beti, kalamarrak jatera joaten garela! Hori bai zirrara! Mugitzen garen inguruetan fitxatuta dituzte tabernak eta leku horietara joaten gara. Emazte eta neskalagun bat baino gehiago nazkatuta egongo da hirurak jo eta oraindik senarra etxera ez zaiolako joan!

Jaiero-jaiero gauzak ikasten zoaz. Beti gustatu izan zaizkit dokumentalak eta horrelakoak, eta "Hezurren egia" ikusi nuenean, egin beharreko zerbait nuela sentitu nuen. Nire ikasketetarako probetxugarria da, gainera, aurten geologia ikasten hasi naiz-eta; arkeologo, biologo eta geologoek batera egiten dute lan. Esaterako, Erlon kuartzoa aurkitu dute eta hori ikaragarria da niretzat! Kuartzoa Erlo puntan!

Orain paretetara begira gabiltza, lehen ikusitakoak berrikusten. Nik "normal" begiratzen dut, baina hauek beste begi batzuekin begiratzen dutela diote. Garai batean orain nik bezala begiratzen omen zuten... Eskarmentuaren ondorioak. Nik orain ez dauden lekuan ere marrak ikusten ditut! Zorte pixka batekin neuk topatuko ditut hurrengoak!

1. AJTA - Granada baserria 1979

2. AJTA - Taldekoa 1980

3. AJTA - Taldekoa 1995

4. AJTA - Taldekoa 1995


5. AJTA - 2014

6. Aurkezpena: Ezkuztako barilla landuak - Gordailu





5



6

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

Perez Arregi Enparantza (Sarrera Enparan kaletik)

20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

608 087 024 / antxieta.arkeologi.taldea@gmail.com

BELAUNALDI BERRIENTZAT ATEAK ZABALIK



Antxieta Arkeologi Taldeko atea parez pare irekiak daude elkartearen ezagutza nahi duzuen pertsona guztientzat. Nor garen eta arrasto fosilak eta aurrehistoriako aztarnen aurkikuntzan zertarako eta zergatik ibiltzen garen interesa duzuenontzat.

Gu ezagutzera etortzen bazarete, zuen kabuz ikusi ahal izango duzue arkeologiaz gain, gure lana, familia eta lagunak ditugula eta hau egitera bultzatzen gaituena ilusioa eta denbora libreaz disfrutatzekeo beharrak direla, beti ere taldean, gustukoaren duguna eginez, hau da, aire librean zurlatu, edo kobetan aztarnak, lanabesak, hezurak edo gure aurrekoen arrastoak bilatzera sartuz.

Horrez gain, Antxieta Arkeologi Taldeko kide izateko arkeologoa izatea beharrezkoa ez dela konturatuko zarete, ezta horrelako gaitasunik frogatzen duen antzeko titulurik edukitzea ere. Altua edo baxua, gizona edo argala, gaztea edo heldua... denok zarete ongi etorriak.

Ez dago badintzarik Antxieta Arkeologi Taldeko kide izateko. Gure jardueran jakinmina edukitzea da soilik beharrezkoa, eta igande goiz batean egin ohi ditugun irteeretako batera etortzea. Horrekin nahikoa da, zaletasuna jakinminaren hurrengo pausoa baita.

Gure deia Azpeitiko gaztediari dago batez ere zuzendua, zuen denbora librearen zerbaitekin



betetzeko beharra sentitzen duzuen neska-mutilei, beste gazte batzuekin beste modu batera erlazionatzeko eta astean zehar motibaturik sentitzeko beharra duzuenoi.

Antxieta Arkeologi Taldeak beste garai bateko aztarnak aurkitu eta gure inguruko hainbat txoko ezagutzeko aukera emango dizue modu dibertigarri eta entretenigarri batean. Aurkikuntza berri bakoitza energiagaz beteriko bultzada pozgarri bat baita.

Gure irteerak, lehen aipatu bezala, igande goizetan egiten ditugu. Zortzirak aldera ateratzen gara eta bazkalordurako bueltatzen.

Beti ere zerbait hartu eta barre batzuk egin ondoren.

Astearteetan, gaueko 21:30etatik aurrera, Enparan kale bukaeran sarrera duen Pérez Arregi Enparantzan dagoen gure lokalean biltzen gara, antzina Telefonicaren eraikina zena, gaur egun Azpeitiko Udalarena.

Oso erraza da. Jar zaitez gurekin kontaktuan ikasteko eta aldi berean ondo pasatzeko gogoia, ilusioa eta gure taldekide izan nahi baduzu, anima zaitez zerbait berria eta gizartearentzat interesgarria dena egitera, gizartea bera baita egingo dituzun aurkikuntzen onuragari.





GURE LANA GIZARTERATZEA

Zuzendari Teknikoa
Jesus Tapia arkeologoa

Helburua:

gizarteak parte har dezala

Azken 50 urte hauetan (1965-2015) hondakin fosil ugari aurkitu ditugu, bai kobazuloetan bai aire librean, eta duela 300.000 urtetik gaur egunera arteko Urola bailararen historiaren zati handi bat berreraikitzeke aukera eman zaigu.

Hartutako pozak handiak eta asko izan dira, aurkikuntzak asko izan baitira, horietako batzuk ikaragarri garrantzitsuak klima-zikloak zein antzinako gure arbasoen eboluzioa ezagutzeko.

Gure eginkizuna bila aritzea da. Balorazio zientifikoa izen handiko euskal zientzilari adituen ardura da. Aurkikuntzak hor daude, zientziaren eskuetan. Aurkitutako haitzuloak itxita daude, egoki gorde eta errazago ikertu eta baloratu daitezten.

Baina... nahikoa al da Antxieta Arkeologi Taldea bilaketa lanetan aritzea eta zientzialariak ikerketan? Beharbada bai, beharbada ez. Taldekide bakoitzaren asebetetze mailaz gain, bazegoen egindako aurkikuntzak eta jasotako ezagutzak Urola bailarako herritarrekin partekatu behar genituela zionik. Nola, ordea? Hori zen gure arazoa.

Ez genuen inongo erreferentziarik, ez pedagogikorik, ez gizarte-komunikazio alorrekorik; ez genuen berriazko dibulgazio-proiekturik, ezta baliabide ekonomikorik ere... Hori zen gure errealitatea.

Halako batean, ordea, ezustean, makina abian jarri zen Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateari esker, Gipuzkoa Foru Aldundiaren laguntza lortu baitzuen Urola bailara mailako gizarte-dibulgazio proiektua gauzatu zedin.

Los numerosos restos arqueológicos hallados entre 1965-2015, nos están permitiendo conocer la evolución humana en el valle de Urola desde 300.000 años. Ahora tratamos de socializar nuestra labor y hacer pedagogía.

The numerous archaeological remains found between 1965-2015, enable us to understand human evolution in the Urola valley from 300,000 years ago. Now we are trying to disseminate our work and teach about these results.



2015-01-26 - Azpeitiko Udaletxean Ezkerretik eskubira, Jose Inazio Arrieta (Antxieta Arkeologi Taldekoa), Jesus Tapia (arkeologoa), Urrategi Alberdi (Azkoitiko alkatea), Leire Etxeberria (Zestoako Alkatea), Eneko Etxeberria (Azpeitiko alkatea), Iker Ruiz de Egiño (Foru Aldundiko turismo arduraduna) eta Andrex Maiz (Antxieta Arkeologi Taldekoa)

HEZURREN EGIA

Urola bailarako herritarrentzako eta ikastetxe-entzako gizarte mailako dibulgazio-kanpaina.

Proiektua 2015eko urtarrilaren 26an aurkeztu zen Azpeitiko udaletxean, eta bertan izan ziren Azpeitia, Azkoitia, Zestoa eta Errezilgo alkateak (Beizamakoa ez). Foru Aldundiaren izenean Iker Ruiz de Eginu bertaratu zen.

Aurkezpenean, aipatutako herrietako postontzietan banatu zen tolestutako posterraren berri eman zen. Posterraren helburua guztiz pedagogikoa zen, eta duela 300.000 urtetik hasita Urola bailarako herrien historiaurrea ezagutaraztea zuen, eta du, xede; eta, horrela, gorago esan bezala, klimazikloen eta giza eboluzioaren berri ematea.

Aipatutako udalerrri horietako herritarrak izan ziren tolestutako kartel-posterra beren etxeetako postontzietan jasotzen aurrenak.

Kanpainaren lagungarri, hitzaldiak eman ziren Azpeitian eta Azkoitian:

Azpeitian, otsailaren 3an (San Agustin Kulturgunean): Martin Arriolabengoa, EHUko

geologoa, "Urola bailararen jatorri geologikoa (El origen geológico del Urola)" – Alvaro Arrizabalaga, EHUko irakaslea eta Aranzadiko arkeologoa, "Urola bailarako aurreneko biztanleak (Los primeros habitantes del Urola)" – Maria Jose Iriarte, Ikerbasqueko ikerketa-irakaslea (EHU) eta Aranzadiko arkeologoa, "Izotz Aroa Kantauri aldean: Urola bailara (La Edad del Hielo en la Cornisa Cantábrica: el valle del Urola)".

Azkoitian, otsailaren 10ean (Elkargunean, Oteiza gelan): Miriam Cubas, Aranzadiko arkeologoa, "Ehiztari eta nekazari artean (Entre cazadores y campesinos)" – Sonia San Jose, Aranzadiko arkeologoa, "Urola bailarako aurreneko herrixkak (Los primeros poblados del Urola)".

Kanpaina, era berean, ikastetxeak inplikatzeko baliagarria izan zen. Gaiak askorako ematen du eta ikastetxeek eurek interesa agertu zuten ikastetxeetan bertan dibulgazioarekin jarraitzeko.

Gainera, udaletxe bakoitzean ipinitako totem batek gizarte-dibulgaziorako kanpaina honen berri ematen du.

Campaña de divulgación social orientada a los habitantes y centros escolares del valle de Urola con participación de los municipios de Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil y Beizama.

Campaign to share the findings with local inhabitants and schools in the Urola valley with the collaboration of local governments in Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil and Beizama.



www.hezurren-egia.eus

Urola bailaran

Cu izan aurretik, gizakia gutxienez 300.000 urtez bizi izan da Urola bailaran. Klima eta inguruak aldizka aldatuz joan dira epe luze horretan, eta Urolako lehen gizakia lehoi, elefante, hiena, makako eta bestelako pitzen artean bizi izan zen. Milaka urte geroago, Izotz Aroan zehar, orduko gizakiak mamutekin, erriuzero lletsuekin, bisonteekin, eta kobelako hartz, lehoi eta hienekin partekatu zuten lurralde hau. Duela 40.000 urte, gu bezalakoa zen gizakiak hozaldirik, latzena gaindiztea lortu zuen bizimodu eziztar-nomadaari esker, eta klima hobarrezin: azkenen, nekazaritza abeltzaintza bilakatu zen duela 7.000 urte, bere lurraldean inikatu.

Urola bailaran, Historiaturreko aldi ezberdinei buruzko datu ugari daude. Halako datuak gordetzen dituzten lekua, "aztarnategi arkeologikoak". Historiaturra zientifikoki ikertu ahal izateko ezbersteak dira, eta Urolan hainbeste leku ezagutzen. 30 urtez etengabe gogoz eta ilustroz egindako lanaren emaitza da.

Antxieta Arkeologi Taldea (1965-2015)

ERRINOZERA - STEPHANORHINUS HEMITOECHUS




MAKAKOA - MACACA SYLVANUS



MAMUTA - MAMMUTHUS PRIMIGENIUS

LEIZETAKO HIENA - CROCUTA CROCUTA SPELAEA



UROLAKO

lehen biztanleak



Kobetan eta aire zabaleko kanpamenduetan bizi ziren, eta landare eta fauna ezberdineko inguruneetan bizitzera moldatu ziren, beraien bizimodua eta teknikak egoera berriara aldirio egokituz. Hasieran ehizariak eta fruitu-bitzaila nomadak baziren ere, gero eta trebetasun handiagoa lortu zuten ehizan eta arrantzan, eta azken momentuetan nekazari eta abeltzain egonkorrak bihurtu ziren, bailarako lehenengo herririk hasiera emanez.

Bizirauteak izan ziren, nahiz eta teknologia sinpleak erabili. Oinarritzko asmakizunik garrantzitsuenak haiek egin zituzten (sua, arkuak, ehiza teknikak, jantziak jostea, animaliak etxeratzea, metalgintza, zer jan edo ez jan jakitea...) eta gainontzeko beharrak buruz eta gogoz betetzea lortu zuten, harri, egur edo hezurrezko tresnekin. Aldi luze hartan izan zen, baita ere, sentimenduetan artistikorako lekua. Kobetako hormetan nahiz hezurretan egindako margo eta figurek garbi adierazten dute haien bizitza, jateaz gain, beste zeezer ere bazela.

Historiaurreak lur azpian edo kobetan gordetako aztarnen ikerketan dauka bere oinarria, eta hemen aurkezten dena Urolako aztarnategirik garrantzitsuenen laburpena baino ez da.

SINBOLOAK

	HOMO HEIDELBERGENSIS Beha Paleolitoa		HOMO NEANDERTHALENSIS Erdi Paleolitoa		HOMO SAPIENS Ehizaria eta artea Goi Paleolitoa		HOMO SAPIENS Nekazaria		HOMO SAPIENS Nekazaria Megalitoak		HOMO SAPIENS Nekazaria Herrirak
--	---	--	--	--	--	--	---------------------------	--	---	--	---------------------------------------



Gipuzkoako
Foru Aldundia



LURRAREN eboluzioa

- Gure planeta duela 4.600 milioi urte sortu zen.
- Orduz geroztik, milioika urtez, dena aldatuz joan da: itsasoak, kontinenteak, mendiak, eta izakiak.
- Harri eta mineral mota bakoitza baldintza zehatzetan osatzen da. Beraz, zein harri mota sortu den jakinez gero, bertan zet-nolako baldintzak izan ziren ere jakin

dezakegu. Lurra eta kontinenteak ere euria, izotza edo hatzearen eraginez higitzen dira, eta eragile klimatiko hauek ere aldatu dira denboran zehar.

- Geologiaren bitartez, lurra, paisaia, klima eta ekosistema desberdinak nolakoak ziren ikas dezakegu.



EUSKAL HERRIA

Itsas azpian

Zapatzen dugun lurra, bera ere aldatu da denboran zehar, eta Urolako mendiak itsas azpian osatutako harriez eratu. Ziren, Duela milioika urte, Iberia eta Europa bananduta zeuden, eta gaur egun Euskal Herria dena inguru horretan, itsaskien maskorak lohi artean gelditu ziren, gaur egungo fosilak bihurtuz. Ondoren, Iberia eta Europa elkartzen, ur azpiko metalinak gainera aterata arte, eta horregatik aurkitzen dira maskor fosilak gure mendietan.



500 milioi urte



400 milioi urte



280 milioi urte



200 milioi urte




105 milioi urte



50.000 urte

Ituldiak: Ron Bakley, Copyright Colorado Plateau Geosystems, Inc.

GIZAKIAREN eboluzioa eta SORKUNTZA. AFRIKATIK EUROPARA




Eboluzioa ope luzeko aldaketa da: espezie bateko talde batek aldaketak jasaten ditu azkenean espezie berria bihurtu arte.

Indibiduoek jasaten dituzten aldaketak **mutazioak** dira, eta aldaketa horiek talde osoa zabaltzen direnean, taldea jatorrizko espezieetik erabat bereiziz, orduan **eboluzioaz** arri gara. Mutazioak ingurumena hobeto egokitzeko balio badu, orduan populazioan zabalduko da kume gehiago izateko eta bizirauteko aukerak handitzen dituelako. Klima eta ingurumena denboran zehar aldatzen direnez, azkenean **baldintza berrietara egokitzeko ez dena desagertu** egingo da. Horregatik, mutazio bat on den edo ez den erabakitzen duena **hautespelen naturala** da.

- **EBOLUZIOA** bultzatzen duten indarrak espezie berriak eta espezieen arteko lehiak dira.
- Eboluzionatzeke, aldaketaren informazio **GENETIKOA** talde osoa zabaldu behar da.
- Inguruaren baldintzak denboran zehar aldatzen direnez, garrantzia duena ez da sendoa izatea, **EGOKITZEKO** ahalmena edukitzea baizik.

GU ERE BELTZAK GINEN, Afrikatik gatzoz

Duela 4 milioi urte, Afrikan, guganaino datorren adarra eta tximinoengana daramana enbor beretik erabat banandu ziren. Harrezkeroztik, gure espeziea osatzeko bidean, adar ezberdinak sortu ziren ingurune eta leku desberdinetara egokituaz. Gure arbasoak gero eta espezie aurreratuagoak bihurtzen ziren bitartean, aldi berean guganaino iritsi ez diren beste leinu batzuk ere sortu ziren. Afrikatik Eurosiara etorritako leinuek Homo neanderthalensis espeziearen sorkuntzara eraman zuten, eta azkenean desagertu egin ziren. Afrikan gelditu zirenek ordea, bertan eboluzionatu zuten. Homo sapiens-a sortu arte, handik mundu osoa zabaldu zena eta gelditzen den giza espezie bakarra dena.



UROLAKO

lehen biztanleak

HOMO HEIDELBERGENSIS

BEHE PALEOLITOA
(600.000-150.000 urte)

- 1. Gizakia**
 - Gizaki mardula eta sendoa zen, hezur trinkoakoa. Buru-kapazidatea gurea baino zertxobait txikiagoa zuen (1.300 cm³).
 - Altueran 1,70 metrotik gorakoa zen, eta 90 kilo inguruko pisua zuen.
 - Azkarra zen eta talde txikietan bizimodu nomada zuen.

- Orojea zen, baina ehizan ere bazekien. Hildako animalia handiak ere jaten zituen.



2. Ingurumena

- Aldi hotzak bizi bazituen ere, orokorrean klima epeleam bizi zen Urola bailaran
- Duela 300.000 urte, gaur egun Afrikan aurkitzen diren espezieak bizi ziren Euskal Herrian: elefanteak, errimozeroak, lehoiak, hienak, makaloak...

3. Gaitasunak

- la gu bezalako entzumena eta hitz egiteko ahalmena zituen, eta elkartanerako gaitasuna ematen zioten.
- Harritzko trenak egiten trebea zen, eta egurrezko lantzak ere egiten zituen ehizarako.
- Sua erabiltzen ikasi zuen lehendabiziko espeziea izan zen.

4. Aztarnak

- Aire zabalean eta kobetan bizi zen, lurraldean zehar mugituz. Aztarnategian berak utzitako harritzko tresnak aurkitu ohi dira.
- Urola bailaran hiru lekutan aurkitu izan dira bere aztarnak: Irrikaitzen (Zestoa), Loliolan (Azpeltia) eta Arnalleitan (Errezi).



HOMO HEIDELBERGENSIS
Behe Paleolitoa



HOMO NEANDERTHALENSIS
Erdi Paleolitoa



HOMO SAPIENS
Ehizaria eta artea
Goi Paleolitoa



HOMO SAPIENS
Nekazaria



HOMO SAPIENS
Nekazaria
Mugailoak



HOMO SAPIENS
Nekazaria
Herrakak



HOMO SAPIENS
Nekazaria
Herrakak

HOMO NEANDERTHALENSIS

ERDI PALEOLITOA
(150.000-40.000 urte)

- 1. Gizakia**
 - Homo heidelbergensis-etik sortutako espezie berria izan zen. Garezur edukiera gurea bezalako zuen (1.650 cm³).

- Altueran txikiagoa zen (1,65 m), nahiz eta oso sendoa eta gihartsua izan, klima hotzera egokitu.

- Bizimodu ibiltaria zeraman, klima hotzean bizitzera moldatua. Azkenean, talde oso txikietan bizitzeagatik isolatu galditu zen eta duela 40.000 urte desagertu egin zen.

2. Ingurumena

- Izotz Aroan bizi izan zen. Lehenago basoa zegoen lekuan estepa zabaldu zen.
- Ipar Europa eta mendik aluenak elurrez eta izotzez estalita zeuden urte osoan zehar.

- Klima hotzera animaliak bizi ziren Euskal Herrian: mamutak, errimozero lieitsuak, marmotak, bisontak, eta kobetako hartzak, lehoiak eta hienak



3. Gaitasunak

- Ehizari trebea zen, lantzak harritzko puniaz armatzen zituen
- Sua egiten trebea zen eta sutondoak pizten zituen. Egur faltan, ehizatuak animalien hezurak erretzen zituen.
- Guk bezalako entzumena eta hitz egiteko ahalmena zituen. Sinesmen sinbolikoak zituen, eta hildakoak lurperatzen zituen.

4. Aztarnak

- Aire zabalean ere bizi bazen ere, aztarnategi gehienak kobetan daude. Beran, sutondoak, ehizatutako animalien hezurak, eta berak utzitako harritzko tresnak aurkitzen dira. Urolako eta inguruko aztarnategi aipagarrienak Arnalda (Zestoa) eta Urkulu (Lastur, Deba) dira.

HOMO SAPIENS

GOI PALEOLITOA ETA MESOLITOA
Gizaki modernoa, ehizaria eta bizkaitza (40.000-7.000 urte)

1. Gizakia

- Gure espeziea Afrikan sortu zen duela 200.000 urte, eta Europan barrena Euskal Herria duela 40.000 urte iriti zen.

- Erabat gu bezalakoak zen, guk ditugun gaitasun fisiko eta mental guztiak zituen.

- Bizimodu nomada zuen, eta lurraldean zehar ibiltzen zen ehizan, arrantzan, eta basafrituak bitzen.

2. Ingurumena

- Izotz Aroaren bukaeran agertu zen, eta ondorengo aldiaketa klima-tikozaren ostean, gaur egungo paisaia ere ezagutu zuen.

- Azken hozaldiairen bukaeran klima eta paisaia artikoak ziren. Elur oirenak, zaldiak, bisontak eta mamutak ezagutu zituen. Hobekuntza klimatikoaren ostean (10.000 urte), basoa zabaldu egin zen eta klima epeleko landare eta animaliak azaldu ziren: basurdea, orkatza...

- Izotzaldian zehar, isasoa orain baino askoz urrituago zegoen. Aldaketa klimatikoaren ondorioz, Ipar Europako glaziarak (izotz multzoak) urtu egin ziren eta isasoa gaur egungo mailara iritsi zen.



3. Gaitasunak

- Ehizarako teknikak eta armak hobetu zituen. Arrantzarako arpoiak elhizarako laguntzeko palanka) eta arkua asmatuz. Txakurra ehaketu zuen ehizan laguntzeko.

- Hotzari aurre egiteko eta janaria lortzeko zuen trebetasunari esker, mundu osoa zabaldu zen.

- Armak eta tresnak asko hobatu zituen. Arrantzarako arpoiak elhizarako azkonak, geziak, etab. egiten zituen. Jaurrigaiak harritzko edo adarrezko puniaz armatzen zituen.

- Jantziak egiteko jostoratzak eta etxenak egiten zituen, eta apaingarniak erabiltzen zituen (zimtzitkarioak, lepokoak...).

- Ahalmen sinbolikoa eta estetikoa oso garatuak zituen. Kobetako margoak eta hezurrezko arte pieza higitkorak egiten zituen.

4. Aztarnak

- Aire zabalean eta kobetan bizi zen. Urolan, bai aire zabalean (Irrikaitz, Zestoa) bai kobetan egindako kanpamenduk (Erralla, Ikeltz eta Arnalda, Zestoa; Ezkuzta, Azpeltian) ezagutzen ditugu. Horien artean, aipatzekoak dira Errallan aurkitutako txakur domestikoa (17.000 urte), edo Ekainen (Gastarainen, Deban), Danbolinzulon (Zestoa) eta Ertaitzen (Zestoa/Deba) margotutako labar-arteak. Arte-pieza higitkorren artean, adibide ezin hobekak aurkitu izan dira Ezkuztan (Azpeltia).

HOMO SAPIENS

NEOLITOA ETA METALEN AROA
Gizaki modernoa, nekazaria eta abeltzaina (7.000 urte-Eromatar garaia)

1. Gizakia

- Nomadak izatek sedentario izatera pasatu zen duela 7.000 urte, lehenengo herririkak sortuz.

- Jangakiak urte osorako biltzeetan gordetzeko aukera izateak hazkunde demografikoa ekarri zuen.

- Populazioaren hazkundeak eta baliabideak kudeatu beharrek gizarte harremanak konplexuagoak bihurtu zituen.

2. Ingurumena

- Klima egungoa bezalakoak zen, baina paisaia aldatzen hasi zen: lursailak, sorokak eta zelaiak landu zituzten.

- Lurraldea antolatzen hasi zen: jabetza eta lurraldetasuna sortu ziren, eta etxekoa eta basatia denaren arteko bereizketa nabarmendu zen. Bizten eta hilen munduak bereizi ziren, herririkak eta hilerriak bananduak.

- Berriak espezieekin batera, kanpoko abere eta landareak hazi zituen (garia, ardia...).



3. Gaitasunak

- Teknika eta material berriak asmatu zituen: harria leuntzea, zeramika onziak egitea, eta, ondoren, metalgintza (kobrea, brontzea, eta azkenean burdina).

- Janariak eta bestelako produktuak ekoizten hasi zen (artilea, ogia, gazta, garagardoa...).

- Eguzki eta ilargialdian oinarritutako sinesmenak eta egutegiak sortu ziren beraz lanekin lotuta. Hazkunde demografikoak lande bereziak sortera bultzatu zuen: erimehanariak, etzegileak...

4. Aztarnak

- Urolan Neolitioko bizilekuri oraingo ezagutzen ez bada ere, hilotiak (Irkuharriak) ugariak dira. Beizaman (Iliain, Basagain, Maramendi), Errezilan (Belanburu) eta Azkoitian (Iruarrieta, Mariutx, eta Kexeta). Ohiko da Bronze Aroko (4000-2800) hilotzak edo zeramikak aurkitzea kobetan (Azkoitiko Urkutte-Aitz, Zestoako Ertxina, Errezilgo Altzortz II eta Aintzulo, eta Beizamako Alereta eta Errentoria). Bronze Aroko bizilekuak, ordea, oso urriak dira, eta adibide horietako batzuk Ikuluteko Gaine eta Asurtzu (Azpeltia) dira.

- Burdin Aroarako (2.800 urte-Eromatar garaia) badugu herri gotortu baten adibide ezin hobea: Munoandi (Azkoitia/Azpeltia).



Ingurugiro etxea, HEZURREN EGIArentzat gordetako gunea

Teknikoki egituratutako dibulgazio-planak aurrera egin dezan, Ingurugiro etxeak HEZURREN EGIA egitasmoaren edukientzat leku bat egin du, Antxieta Arkeologi Taldeak azken 50 urteotan egindako aurkikuntzak oinarri, Urola bailararen historiaurrea ezagutarazteko.

Gunearen aurreneko informazio-panelean Lurraren eboluzioa (Euskal Herria itsas azpian) eta gizakiaren garapena (Afrikatik Europara) agertzen dira.

Hurrengo atalean, "Urolako lehen biztanleak", beste lau panel daude, hurrenkera honetan: Homo Heidelbergensis (600.000 – 150.000 urte), Homo Neanderthalensis (150.000 – 40.000 urte), Homo Sapiens nomada (40.000 – 7.000 urte) eta Homo Sapiens sedentarioa (Duela 7.000 urtetik hona).

Panel horietako bakoitza erakustoki batez lagundua dago; bertan, garai bakoitzari dagozkion Urola bailarako aurkikuntza garrantzitsuenen erreplikak ikus daitezke.

Horrela, Ingurugiro etxeak dituen bisitariak beste modu batera jasoko ez luketen informazio gehigarria eskuratzen dute.

Horretarako, Ingurugiro etxeko langileek aurkezten den gaiari buruzko berariazko informazioa jaso dute, bisitak egoki gidatu eta egin ahal zaizkien galderari erantzun ahal izateko.

Etorkizunera begira gure erronka bertako edukiak zabaltzean oinarritzen da.

El Museo Ingurugiroetxea de Azpeitia ha cedido un espacio para los contenidos de Hezurren Egia, con el fin de divulgar la prehistoria del valle del Urola en base a los hallazgos de Antxieta Arkeologi Taldea durante estos 50 años.

The Azpeitia Ingurugiroetxea Museum has assigned a space for the contents of Hezurren Egia, in order to promote the Urola Valley prehistory based on the findings of Antxieta Arkeologi Taldea over the last 50 years.







www.hezurren-egia.eus